



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

EKONOMIA
ETA ENPRESA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE ECONOMÍA
Y EMPRESA

GRADU AMAIERAKO LANA

ETORKIZUNeko ZERGADUNAK HEZIZ ONGIZATE-ESTATUA ZIURTATU

**Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza Gradua
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)
Ekonomia eta Enpresa Fakultatea**

2021/2022 ikasturtea

Egilea: Naia Lope Unanue

Zuzendaria: Yolanda Jubeto Ruiz

Bilbon, 2022ko ekainaren 24an



LABURPENA

Lan honetan zehar, ongizate eta gizarte babeseko sistema unibertsal, publiko eta kalitatezkoa, finantzaketari dagokionean, nola ziurtatu daitekeen aztertuko dugu. Bestera esanda, oraingo zein etorkizuneko belaunaldiei ongizatea bermatzeko tresnetan jarriko dugu arreta.

Aberatsak aberatsago eta txiroak txiroago diren honetan, gizarte solidario gisa, helburua herritar guztiok oinarrizko beharrak ase izatea izan behar dela ikusiko dugu baita, horretarako tresna nagusia, sistema fiskal justua, hau da, sistema fiskal progresiboa dela ere, honek aberastasunaren nolabaiteko birbanaketa eta orekatzea ahalbidetzen baitu. Horrez gain, gastu publikoaren eta inbertsioaren beharrak oso handiak izango diren testuinguru historiko baterantz goaz. Beraz, baliabideen kudeaketa eraginkorra eta errentagarria egiteaz gain, sozialki aurreratuenak diren herrialdeen antzeko presio fiskala ezartzea funtsezkoa dela ikusiko dugu. Ordea, gaur egun, zerga altuak ezartzea ez dago bereziki ondo ikusia gizartean; oro har, jendeak ahalik eta zerga gutxien ordaintzea nahiago du. Ulerkera hau aldatu asmoz, ikastetxeetan fiskalitatearen eta sektore publikoaren funtzioa eta garrantzia azpimarratzean eta ulertaraztean oinarritutako programa bat martxan jartzeak eragin positiboa izango lukeela erakutsiko dugu.

Hitz gakoak: ongizate-estatua, gizarte ongizatea, zerga-sistema, aurrekontu publikoak, progresibitatea, justizia fiskala, ekitatea, hezkuntza.

ABSTRACT

Throughout this work we will analyze how a universal, public and quality system of welfare and social protection can be ensured in terms of financing. In other words, we will focus on the instruments we have to ensure the well-being of present and future generations.

Now that the rich are richer and the poor are poorer, as a solidary society, we will see that the goal is for all citizens to be able to satisfy their needs and, that the main instrument for this, is a fair tax system, that is, a progressive tax system, as it allows certain redistribution and balance of wealth. In addition, we are moving towards a historical context in which the needs for public spending and investment are going to be very high. Therefore, in addition to an efficient and worthwhile management of resources, we will see that it is essential to establish a fiscal pressure similar to the ones of the most socially advanced countries. However, these days, high taxation is not very well seen; generally, people prefer to pay as little tax as possible. In order to change this understanding, we will show that the implementation of an educational program aimed at students and based on highlighting and making understand the role and importance of taxation and the public sector would have a positive impact.

Key words: welfare state, welfare society, tax system, public budget, progressiveness, tax justice, equity, education.

AURKIBIDEA

0.- SARRERA	5
1.- ZER DA ONGIZATE-ESTATUA	8
1.1.- Ongizate-estatuaren jatorria eta bilakaera	8
1.1.1.- Ongizate-estatuaren aurrekariak eta bilakaeraren gako nagusiak	8
1.1.2.- Bismarcken eredu alemaniarra eta Beveridgeren eredu britainiarra	10
1.1.3.- Ongizate-estatuaren krisia	11
1.1.4.- Ongizate-estatuaren egungo egoera eta etorkizuneko aurreikuspenak	11
1.2.- Ongizate-estatua eta gizarte ongizatea kontzeptu gisa	12
1.2.1.- Ongizate-estatua	12
1.2.2.- Gizarte ongizatea	13
1.3.- Ongizate-estatu eredu eta sailkapen ezberdinak	14
1.3.1.- Esping-Andersen en hiru munduak	14
2.- ONGIZATE-ESTATUAREN FINANTZAKETA	16
2.1.- Finantzaketa lortzearen arduraduna: Estatua	16
2.1.1.- Estatu Espainiarreko finantzaketa-sistema	16
2.1.2.- EAE-ko finantzaketa-sistema	18
2.1.2.1.- Kontzertu Ekonomikoaren ezaugarritzea	18
2.1.2.2.- Kontzertu Ekonomikoaren funtzionamendua	19
2.1.2.3.- Kontzertu Ekonomikoaren abantailak eta desabantailak	20
2.2.- Presio fiskala	21
2.2.1.- Presio fiskala kontzeptu gisa	21
2.2.2.- Munduko herrialde ezberdinetako presio fiskala	22
2.2.3.- Estatu Espainiarreko autonomia erkidegoetako presio fiskala	24
2.3.- Egitura fiskala	25
2.3.1.- Egitura fiskala kontzeptu gisa	25
2.3.2.- Sarrera publikoen iturri nagusiak	25
2.3.2.1.- Zor publikoa	25
2.3.2.2.- Hainbat sarrera ez finantzario	27
2.3.2.3.- Zergak	28
2.3.3.- Zerga politika eta ekitatea	30
2.3.4.- Egitura fiskalaren hutsuneak	30
2.3.5.- EAE-ko diru-sarrerak	31
2.3.6.- EAE-ko iruzur fiskala	33
2.4.- Gastu publikoa	34
2.4.1.- Gastu publikoa kontzeptu gisa	34
2.4.2.- EAE-ko gastu publikoa	34
3.- ONGIZATE-ESTATUA, FISKALITATEA ETA HEZKUNTZA	36
3.1.- Baloreak eta hezkuntza	36
3.2.- EAE-ko esperientzia	38
3.2.1.- Ekonomia eta Zergak programa	38
3.2.2.- Hobekuntzarako proposamenak	41
4.- ONDORIOAK	44
5.- BIBLIOGRAFIA	45

ESKEMEN AURKIBIDEA

Eskema 1: Estatu Espainiarreko finantzaketa-sistemaren antolaketa (arabide komuna) _____	16
Eskema 2: EAE-ko sektore publikoaren antolaketa _____	19

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1: Bizi itxaropena jaiotzean 1900-2011 _____	13
Grafikoa 2: Erkidego guztietan kupoa aplikatuko balitz bilketan jasango luketen aldakuntza ___	17
Grafikoa 3: OCDE-ko herrialdeen presio fiskala 2018an (BPG %-tan) _____	23
Grafikoa 4: Estatu Espainiarreko autonomia erkidegoetako presio fiskala 2018an (BPG %-tan)	24
Grafikoa 5: EAE-ko aurrekontuak, gastuen atala _____	35
Grafikoa 6: Programaren inplementazioa mailaren arabera _____	38
Grafikoa 7: Programaren inplementaziorako baliatutako saio kopurua _____	40
Grafikoa 8: Programaren inplementaziorako baliatutako ikasgaia _____	40

IRUDIEN AURKIBIDEA

Irudia 1: Arabide komunekiko autonomia-erkidegoen finantzaketa _____	17
Irudia 2: Munduko herrialde ezberdinen presio fiskala 2021ean (BPG %-tan) _____	22
Irudia 3: Ongizate-estatu – Fiskalitatea – Hezkuntza elkar eragina _____	36

TAULEN AURKIBIDEA

Taula 1: Gizarte Segurantzako gastua Estatuaren gastuen guztizkoarekiko %-tan (1900-1990) _	9
Taula 2: EAE-ko diru-sarrerak Foru Aldundiaren arabera _____	31
Taula 3: EAE-ko diru-sarrerak tributu motaren arabera _____	31
Taula 4: Itundutako zergengatik Foru Aldundien diru-bilketa 2021ean _____	32
Taula 5: EAE-ko zerga iruzurra osatzen duten zerga nagusiak eta hauen zenbatekoa _____	33
Taula 6: Ikasleen ezagutza mailan emandako aldaketa edo ikasleentzako probetxu maila ____	40
Taula 7: Irakasleen gogobetetze maila _____	41

0.- SARRERA

HASIERAKO HAUSNARKETA

Gure inguruan ongizate-estatuari buruz hitz egiten hasiz gero, printzipioz, ez dugu kontrako jarrera hartuko duen inor topatuko. Gizarte moduan guztiok oso arto agertuko gara ongizate-estatuan bizi garela esanez, baina gaian apur bat sakonduz gero, ziurrenik, adostasun maila hori jaisten hasiko da.

Ongizate-estatua zer den definitzerakoan iritziak ez dira hain berdinak izango eta Estatuak herritarroi ziurtatu beharrekoa zehaztean ezberdintasunak areagotzen joango dira. Doako Osasuna? Gehiengoak baietz esango du. Guztiontzat? Batzuek ez dute bat egingo. Hezkuntza? Guztiok ados, baina zenbat diru inbertitu behar da? Etxebizitza? Oinarrizko Soldata Duina? Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta? Asko eta asko dira erantzun beharreko galderak, eta beste horrenbeste honen inguruan dauden erantzun eta iritziak.

Behin ongizate-estatua zer den adostutakoan edo, behintzat, bakoitzak bere ideologiaren arabera definitutakoan, honen oinarrizko alderdi batean jarri behar da arreta, finantzaketan, hain zuzen. Izan ere, ongizate-estatua aurrera ateratzeko dirua behar da, hori ez du inork ukatuko. Baina beharrezkoa den diru kopurua finkatzean ere, desadostasunak sortuko dira eskaini nahi dugun kalitatearen arabera; ez da gauza bera hezkuntzan 30 edo 20 ume ratiotun gelak izatea, ez da gauza bera mila biztanleko 4 edo 5 mediku izatea...

Nahi ditugun baliabideak zehaztuta, esan bezala, dirua nondik aterako dugun aztertu behar dugu eta, hemen ere, ideologiaren eta interesen arabera, erantzuna ezberdina izango da, baina tresna bera: zergak. Egon badaude zenbat eta zerga gutxiago ezarri orduan eta gehiago biltzen dela esaten dutenak, baina munduko errealitateari erreparatuta, ongizate-estatu indartsuena duten herrialdeak presio fiskal altuena duten herrialdeak dira.

Aldi berean, baliatutako edo ezarritako zerga horiek, beren izaeraren arabera, ongizate-estatua lagundu edo kaltetu dezakete, ongizate-estatua justizia sozial eta ekonomikoarekin lotzen badugu behinik behin. Izan ere, zerga batzuek, zerga zuzenak deitutakoek, zergadunaren egoera ekonomikoa hartzen dute kontuan eta, beraz, progresiboak izateko aukera eskaintzen dute; baina, zeharkako zergak, berriz, guztiok berdina ordaintzen ditugu, gure gaitasun ekonomikoa edozein dela ere. Beraz, ez da gauza bera izango dirua modu batean edo bestean biltzea.

Edozein kasutan, argi daukaguna zergarik gabe ongizate-estaturik ez dagoela eta zergadunak guztiok garela da. Baina uste dugu gizartean pertsona askok zer ikusirik ez duten errealitate bi direla pentsatzen dutela. Adibide bat ipintzearren: etxean obra bat egin eta BEZa ordaindu ez duen pertsona bat lasai asko joango da doako osasuna eskatzera.

Honen atzean bi arrazoi nagusi egon daitezkeela uste dugu:

1.- Ezagutza falta: orokorrean ez ditugu indarrean dauden zergak ezagutzen; ez dakigu bakoitza zergatik ordaintzen dugun, ez dakigu bakoitza nolakoa den, ez dakigu zerga horiek ez zertan ez zein neurritan gastatzen edo erabiltzen diren...

2.- Konpromiso eta erantzukizun eza: oro har, gaur egun, zergak ez ordaintzea ez dago txarto ikusia gizartean, are gehiago, askotan kontrakoa dirudi, zenbat eta azkarragoa izan orduan eta zerga gutxiago ordainduko dituzu.

Ondorioz, zergak ordaintzea balore positibo gisa ikusi arte, gure gizartearekiko dugun konpromiso gisa ikusi arte, arazo honek konponbide eskasa izango du. Horregatik, ikastetxeetan, aurrera pausuak ematea ahalbidetu duten beste gai batzuk lantzen diren bezala (berdintasuna, elkarbizitza, elkartasuna...) hau ere lantzea funtsezkoa iruditzen zaigu.

LANAREN HELBURUAK ETA METODOLOGIA

HELBURUAK

Lan honen helburu nagusia ongizate-estatua ziurtatzeko tresna nagusiak fiskalitatea eta hezkuntza direla azpimarratzea da, baita, hauen ezaugarritzeari dagokionean, hobekuntzarako zenbait ekarpen egitea ere. Izan ere, gaur egun, zergak dira ongizate-estatua finantzatzeko diru iturri garrantzitsua eta, herritarrek hauek ordain ditzaten, hezkuntzak eta, zehazki, heziketa fiskalak betetzen duten funtzioa funtsezkoa da. Harreman hori da, hain zuzen, lan honen bidez ikusarazi eta hobetu nahi duguna.

METODOLOGIA

EAE-ko egungo gazteok jaiotzatik ezagutu dugu ongizate-estatua eta, beraz, beharbada, ez gara hau galtzeak suposatuko lukeena irudikatzen gait. Horregatik, lehenik eta behin, Maria José Martínez Herreroren *Las políticas de bienestar en Europa. Una aproximación al Estado de Bienestar desde un enfoque de género* tesiko *Origen y evolución del Estado de Bienestar* kapitulutik abiatuta, eta historialari, ekonomialari, soziologo eta politikari ezberdinek idatzitako literatura oinarri hartuta, iraganari erreparatu nahi izan diogu. Izan ere, gauzak zertarako egiten eta mantentzen ditugun ulertzeko, zergatik sortu ziren ezagutzea garrantzitsua iruditzen zaigu. Gainera, iraganeko esperientziek irakaspen ugari eskaintzen dizkigute.

Ondoren, ongizate-estatuaren finantzaketa iturri nagusiak zeintzuk diren identifikatzeko, gastu publikoa zertara bideratzen den ezagutzeko eta bai batak bai besteak dituzten hutsuneak eta honek ongizate-estatuarengan dituen ondorioak mahai gaineratzeko, datu-baseen azterketa burutu dugu. Horretarako, administrazio ezberdinen web orrietara jo dugu datu bila, Eustat, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundiak informazio iturri nagusiak izanik. Horrez gain, zenbait kontzeptu fiskalen definizio tekniko baino ulergarriak osatzen saiatu gara, zenbaitetan sinonimo gisa erabiltzen ditugun kontzeptuon arteko ezberdintasunak argitu asmoz. Horretarako, legedia eta hiztegi juridiko eta ekonomikoak baliatu ditugu batez ere, Zergei buruzko Foru Arau Orokorra eta Economipedia tarteko. Horrez gain, BBVA Research ere oso erabilgarria izan zaigu.

Ongizate-estatuaren garrantziaz zein hau mantentzeko tributazioaren beharrezkotasunaz jabetuta eta hau kaltetzen duten jarrerak zenbateko pisua eta eragina duten ikusita, hezkuntzan eta kontzientziazioan jarri nahi izan dugu arreta. Eusko Jaurlaritzak, hiru Foru Aldundiek eta Gestionetek 2021eko ekainaren 21ean argitaratutako *Ekonomia eta Zergak Txostenetik* abiatuta, heziketa fiskala helburu duen izen bereko programaren nondik norakoak aztertu ditugu, baita honi zenbait ekarpen egin ere.

Amaitzeko, programak bai ikasleen ezagutza mailan bai irakasleen gogobetetze mailan izandako emaitza positiboak ikusita, ondorioetan, hasierako hipotesian berresten gara, hau da, hezkuntzak, kontzientziazio fiskalari eta, beraz, ongizate-estatua mantentzeari dagokionean, funtsezko funtzioa betetzen duela.

LANAREN EGITURAKETA

Lana 3 puntu nagusitan banatuta dago beraz: Ongizate Estatuaren jatorria, kontzeptua eta motak definitzen dituen lehenengo puntu bat; honen finantzaketa, gastu publikoa eta hutsuneak aztertzen dituen bigarren puntu bat; eta hau bermatzeko funtsezkoa den hezkuntzari eta heziketa fiskalari buruzko hirugarren puntu bat. Amaieran, ondorio nagusiak jaso ditugu.

Azterketa hori guztia lekutzeko, EAE hautatu dugu; batetik, tokiko errealitatea aztertzea beste herrialde bateko errealitatea aztertzea baino interesgarriagoa eta erabilgarriagoa dela uste dugulako eta, bestetik, datuak eskuratzerako zein interpretatzeko errazagoa delako. Dena den, noizean behin mundua, OCDE eta Estatua izango ditugu aztergai, zenbait daturi neurria hartzeko eta kontzeptuak behar bezala ulertzeko, argazki orokorragoa izatea, konparaketak egin ahal izatea eta adibideak jarri ahal izatea oso baliagarria baita.

Bestalde, esan bezala, informazio iturri ezberdinak erabili ditugu, Eustat, Eusko Jaurlaritza eta Foru Aldundien web orrietako definizioak, txostenak eta datuak esaterako. Horrez gain, unibertsitate ezberdinetako ikasle eta irakasleek egindako lanak baliatu ditugu, baita gaian adituak diren zenbait erakunde eta norbanakok egindako ekarpenak ere. Hori horrela, iturri garrantzitsuenak bibliografian zerrendatuta daude.

1.- ZER DA ONGIZATE-ESTATUA

Atal honetan ongizate-estatuaren nondik norakoak aztertuko ditugu. Horretarako, lehenik eta behin, honen aurrekariari erreparatuko diegu, baita egun ezagutzen dugun ongizate-estatua egituratu arte honek izandako bilakaerari ere. Ondoren, egun hartzen duen forma zehatzaren definizioa osatzen saiatuko gara, betiere aditu beste ulerkera daudela kontuan izanik. Eta lehenengo puntu honekin amaitzeko, eredu eta sailkapen ezberdinak aipatuko ditugu, hauen arteko antzekotasun eta ezberdintasun nagusiak azpimarratuz. Hau guztia aztertzeko, batik bat, M. J. Martínezen tesiko *Origen y evolución del Estado de Bienestar* kapitulua baliatuko dugu.

1.1.- ONGIZATE-ESTATUAREN JATORRIA ETA BILAKAERA

1.1.1.- ONGIZATE-ESTATUAREN AURREKARIAK ETA BILAKAERAREN GAKO NAGUSIAK

Ongizate-estatu terminoa 1942 urtean sortu bazen ere, ondorengo paragrafoetan ikusiko dugunez, aurretiaz hasitako prozesu luze eta motel baten ondorio da, etengabeko hazkunde eta bilakaeran zegoen biztanleriaren eta gizartearen beharrei erantzuteko jaio zena. Prozesu hau ongizate-estatuaren hedapen eta orokortze mailaren arabera hiru etapatan bereiz daiteke.

Lehenengo etapa ongizate-estatuaren aurrekari historiko eta kontzeptuala da. Ongintzan eta asistentzian oinarritzen zen eta Erdi Aroan, Erregimen Zaharlean eta Erregimen Liberalean zehar egon zen indarrean. Garai hartako prestazioen onuradunak pobrezia mugatik behera bizi ziren herritarrak baino ez ziren eta prestazioen maila normalean ez zen Estatuaren udalerrak edo ongintzan aritzen ziren erakunde pribatuak baizik.

Gizarte-laguntzan aritutako lehen instituzio edo organismoak, Erdi Aroan koka ditzakegu. Garai hartan adinekoen, gaixoen, umezurtzen eta pobreen zaintza, oro har, familien gain bazegoen ere, jaun feudalek, gremioek, kofradiek eta bereziki Elizak zenbait laguntza erakunde sortu zituzten berauek osatzen zituzten kideei nolabaiteko babesa eskaintzeko asmoz.

Baina laguntza hori ez zen nahikoa izan. XV eta XVI. mendeetako uzta txarrek gizartearen gehiengoak jasan zituen goseteak eta muturreko pobrezia eragin zituzten eta, ondorioz, landatik hirirako emigrazio jendetsua eman zen. Hiriguneetako lana langile gehiagoren artean banatu beharrek, ordea, egoera larriagotu besterik ez zuen egin, soldata murrizketak eragin baitzituen, eta, aipatu bezala, Eliza-erakundeak ez ziren egoerari eusteko gai izan.

Horregatik, XVIII. mendean, karitate kristauan baino, elkartasunaren ideian oinarritutako politika sozialak garatzen hasi ziren. Zentzu horretan, ilustrazioaren garaian, zergen bidez finantzatutako pobreentzako funtsak eta udal-laguntzak sortu zituzten. Era berean, ekonomiaren atzeraldiek langileengan eragin zituzten ondorio latzen aurrean, Industria Iraultzak zein Frantziako Iraultzak, langile mugimendu indartsu baten bidez, norbanakoaren eskubideak aldarrikatzearekin batera Estatuaren nozio berria bultzatu zuten, honen erantzukizun sozial publikoa handituz.

Batik bat gertakari historiko hauen ondorioz, XIX. mende bukaeran, bigarren etapa garatzen hasi zen Europan. Kasu honetan herritarrek ez zuten beren errenta maila frogatu beharrik gizarte-zerbitzuak eskuratzeko. Hala ere, baldintza batzuk bete behar zituzten: zergak ordaindu izana eta aseguruari jasotako kontingentziaren bat gertatu izana. Beraz, kontribuziozko eta derrigorrezko gizarte-aseguruetan oinarritutako gizarte-segurantza zen. Horrez gain, lehenetsuneko edo oinarritzko ondasun publikoak hornitzeko gastua handitu zuen ereduaren izan zen, hauen artean hezkuntza, osasuna eta, neurri txikiagoan bada ere, etxebizitza indartuz.

Hirugarren etapaan, aldiz, gizarte segurantza herritar guztiak bere gain hartzen hasi zen, beren diru-sarrerak eta lan-egoera edozein izanda ere, hau da, izaera unibertsala hartu zuen. 1919-1939 gerra arteko garaian emandako bilakaera politiko eta ekonomikoa erabakigarria izan zen aurreko ereditik oraingo ereduraren igarotzeko, baina, egun ezagutzen dugun ongizate-estatu eredu hau, II. Mundu Gerra ostean egonkortu zen, tesi keynesiarren garapenarekin batera.

Keynesen arabera, ekonomia, bere kabuz, ez da oparotasun ekonomikoa eta justizia soziala bermatzeko gai. Horregatik, kapitalismoaren berezko krisi garaietan, ekonomia suspertzeko eta prekaritatearen aurrean herritarrak babesteko, ekonomiaz kanpoko elementu batek esku hartu behar du, Estatuak hain zuzen ere, eta azken honek ondorengo tresnak baliatu behar ditu: moneta-politika, inbertsio publikoa, zerga-politika eta ekonomia-, gizarte- eta kultura-politikak.

Tresna hauen garaiko adibide dira sektore batzuen nazionalizazioa, ekonomiaren nolabaiteko planifikazioa, azpiegituretan gastu handiagoa, enplegu osoa¹ (biztanleria aktiboaren %3tik beherako langabezia-tasa), gizarte prestazioen hobekuntza eta doako hezkuntza eta osasungintza. Honen guztiaren azken helburua ziurtasuna lortzea zen, ekonomia eredu misto baten bidez, kapitalismoak sortutako aberastasuna birbanatuz eta erdiko klasea sortuz.

Taula 1: Gizarte Segurantzako gastua Estatuaren gastuen guztizkoarekiko %-tan (1900-1990)

	1900	1920	1940	1960	1980	1990
Alemania	3,9	21,6	18,7	24,4	42,2	40,9
Italia	0,6	4,7	7,8	13,5	31,3	31,4
Erresuma Batua	-	13,4	17,5	17,3	30,7	32,1
Frantzia	0,8	3,6	11,9	13,5	40,9	39,1
Espania	7,8	3,9	4,5	5,2	18,0	33,1

Iturria: Comín, F. (1996)

Taula hau aipatu berri dugun trantsizioaren erakusle da. Ikus dezakegunez, I. Mundu Gerra bukatzeaz geroztik (1918) mendebaldeko ekonomien aurrekontuetan gastu publiko sozialaren garrantzia handitzen hasi zen, XX. mende bukaeran aurrekontuen guztizkoaren herena izatera heldu arte. Lindert (2004) eta Comínen (2006) arabera, hazkunde eta egonkortze honen atzean bi arrazoi nagusi daude: erakunde demokratikoen sendotzea eta hazkunde ekonomikoa.

¹ Kontuan izan behar dugu, garai hartan, gizonezkoen enpleguari bakarrik egiten zitzaizela erreferentzia.

Izan ere, hazkunde ekonomikoak errenta altuagoak eta beraz, aurrezteko gaitasun handiagoa ekarri zituen berekin, eta honek, era berean, bidezko zerga-sistema eraginkorrak ezartzea ahalbidetu zien Estatuari, hauen bidez gizarte-segurantzako zerbitzuak finantzatu ahal izateko. Bestalde, demokratizazioak Estatuaren aurrekontu eraldaketa hori finkatzea ahalbidetu zuen, baita horrekin bat zetorren gizarte-legeria garatzea ere. Horregatik, ez da kasualitatea Gizarte Segurantza sistema XX. mendeko 50eko hamarkadan, European demokraziak sendotzearekin eta horietan sufragio unibertsala ezartzearekin batera, hedatu izana.

1.1.2.- BISMARCKEN EREDU ALEMANIARRA ETA BEVERIDGEREN EREDU BRITAINIARRA

Aurrera egin aurretik, parentesi txiki bat ireki, atzera egin, eta, Posmodernia aldizkariko edukia oinarritzat hartuz, aipatu berri ditugun 2. eta 3. etapen aitzindariak izan ziren herrialdeetan, Alemanian eta BHan hurrenez hurren, ongizate-estatuak hartu zuen forma aztertuko dugu labur.

BISMARCKEN EREDU ALEMANIARRA: XIX. mendeko 80ko hamarkadan, Alemaniaren batasuna lortu ostean eta industrializazio garai bete betean, egungo gizarte segurantza sistemarekin antzekotasun ugari dituen eredu bat (*Wohlfahrtsstaat*) ezarri zuen lehen herrialdea bihurtu zen Alemania, hala, hirietako soldatapeko langileak gaixotasun, istripu, elbarritasun eta zahartzaroko arriskuetatik babestuz. Aipatutako prestazioak langileen eta enpresa pribatuen nahitaezko kontribuzioen bidez finantzatzen ziren eta, hauei esker, aseguratuz guztiek legedi nazionalak modu uniformearen ezarritako prestazioak jasotzeko eskubide indibiduala bermatua zuten. Garaipen hau langile mugimenduaren, mugimendu sindikalaren eta alderdi sozialisten (Lege Antisozialisten bidez urte luzez legez kanpo utzitako SPD indartsuena izanik) presioari esker lortu zen, sistema kapitalistari kritika gogorrak egiteaz gain, Estatuak bera zalantzan jarri baitzuten. Beraz, argi dago Bismarck autoritario eta kontserbadoreak batasun nazionala babesteko, langileriaren iraultza ekiditeko eta sozialdemokraten babes eta parte hartze politikoaren hazkundera geldiarazteko sortu zuela Estatuak kudeatutako gizarte segurantza; horretarako, lehiakideek proposatutako neurri batzuk bere eginez, haien atxikimendua bilatuz.

BEVERIDGEREN EREDU BRITAINIARRA: XX. mendeko lehen hamarkadan Britainia Handiak liberalismo tradizio luzearekin hautsi zuen eta, gobernu laboristaren agindupean, ongizate-estatuari eta gizarte politikei bide eman zien. Beveridge Txostena izeneko dokumentua honen isla argia da. Dokumentu honek, 1942 urtean, ongizate-estatu kontzeptua (*Welfare State*) jaso zuen lehen aldiz eta honen oinarri teorikoak ezarri zituen. Honek justizia soziala zuen helburu eta herritar guztien, bereziki zaugarrienen, gutxieneko bizi-estandarra bermatzeko ardura Estatuari esleitzen zion. Hori horrela, jabetza pribatuak funtzionatzen ez zuten kasuetan, Estatuak, laguntzen eta nazionalizazioaren bidez, esku hartzen zuen. Honen adibide dira, besteak beste, zahartzaroko pentsio publikoak, langabezia asegurua eta doako osasun sistema. Gizarte-zerbitzu horien guztien finantzaketari dagokionez, enpresari eta langile guztiek ordaindu beharreko tasak edo kotizazio uniformeak ezarri zituen. Era berean, enplegu osoa sustatu zuen eskulanaren birbanaketa eginez. Honen bidez, herritarren autonomia bermatu nahi zuen, hots, herritarra, laguntzen beharrik gabe, bere bizimodua antolatzeko gai izatea.

1.1.3.- ONGIZATE-ESTATUAREN KRISIA

Ongizate-estatuaren bilakaeraren analisiarekin jarraitzeko, XX. mende bukaeran honek izandako gorabeherak aztertuko ditugu, urte horietan bizitako krisi ezberdinek ongizate-estatuaren existentzia bera arriskuan jarri baitzuten.

Batetik, 1973ko petrolioaren krisiak inflazioaren eta langabeziaren gorakada eragin zuen eta joera hori geldiarazten saiatzeko politika publikoari lotutako neurriak hartu ziren arren, egoerak okerrera egiten jarraitu zuen. Testuinguru horretan, Friedmanen tesiak aplikatzen hasi ziren. Honen arabera, inflazioa geldiarazteko ongizate-estatuaren zenbait alderdi desegin behar ziren, ongizate-estatuak gastu publikoa handitzea dakarrelako eta honek inflazioa ere handitzea eragin dezakeelako.

Horrez gain, 80ko hamarkadan, Margaret Thatcher Erresuma Batuko eta Ronald Reagan Estatu Batuetako presidente izan ziren bitartean, gizarte politikek eta ongizate-estatuak murrizketa ugari jasan zituzten; enpresen eta langileen arteko harremana eten zen, lan prekarietateak gora egin zuen eta zuzeneko zergak murriztu zituzten zeharkako zergak handitzen zituzten bitartean.

Bestetik, 90eko hamarkadan, ongizate-estatuaren sostengarritasuna zalantzan jarri zen berriz ere, kasu honetan herrialde garatuetako biztanleriaren pixkanakako zahartzearen eta jaiotza tasaren jaitsieraren ondorioz, ez baitzegoen erretiro pentsioak ordaintzeko adina biztanle. Hala ere, emakumea lan munduan hasteari eta immigrazioaren fenomenoari esker arazo hau nolabait konpondu zen.

1.1.4.- ONGIZATE-ESTATUAREN EGUNGO EGOERA ETA ETORKIZUNEN AURREIKUSPENAK

Oztopoak oztopo, ongizate-estatuak baditu 80 urte. Herritartasunean oinarritutako eskubide politiko, sozial eta zibilak langile mugimenduen, mugimendu demokratikoaren eta mugimendu sozialen borroka eta lan askori esker lortu ziren eta herritarrak ez dira inoiz horiei uko egiteko edo galtzeko prest egon, ongizate-estatuaren defentsaren eta hobekuntzaren alde borrokatuz.

Gaur egun, herrialde garatuek, oro har, demokrazia sendoa dute, baita oinarrizko eskubideak bermatzen dituen sistema bat ere. Dena den, ongizate-estatua gainbeheran dagoela ukalezina da eta, eredu sozioekonomikoa eraldatzeko zein herritarrek hau mantentzeko konpromisoa izateko neurriak hartu ezean, etorkizunean joera berdina jarraituko duela aurreikus daiteke.

Izan ere, azken hamarkadotan neoliberalismoak bere eredu politiko eta ekonomikoa ezarri du merkatu librearen eta norbanakoen interesen mesedetan. Hainbat dira norabide horretan hartutako neurriak: sektore ekonomiko publikoen pribatizazioa, errenta altuenen ekarpenak mugatzeko erreforma fiskalak, gastu publikoa mugatzeko aurrekontuen erreformak, enpresari onurarako eta langileen kalterako lan erreformak... eta abar luze bat; politika sozial askoren murrizketa edo desagerpena finean. Gainera, herritar askok neurri horiek ontzat jotzen dituzte, ekonomiaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak direla sinetsi baitute.

1.2.- ONGIZATE-ESTATUA ETA GIZARTE ONGIZATEA KONTZEPTU GISA

1.2.1.- ONGIZATE-ESTATUA

Ongizate-estatu kontzeptua oso zabala da eta, beraz, ez dago honen definizio edo ulerkera bat eta bakarrik. Hainbat dira kontzeptua mugatzeko dauden zailtasunak. Batetik, herrialde eta une historiko bakoitzean, ongizate-estatuaren berezko zerbitzuak emateko modua ezberdina izan da. Bestetik, ongizate-estatuaren mugak oso zabalak dira zerbitzuon iraupena, zenbatekoa, finantzaketa eta hauek ezaugarritzen dituzten bestelako alderdiak zehazteari dagokionean. Eta azkenik, kasu batzuetan, gizarte-laguntzak Estatuak eskaini beharrean, beste eragile batzuek eskaintzen dituzte, Elizak edo Gobernu Kanpoko Erakundeek esaterako.

Gauzak horrela, aditu eta erakunde ezberdinek egindako definizioak oinarritzat harturik, ideia erakusgarrienak biltzen eta ondorengo definizio "propioa" osatzen saiatu gara.

Ongizate-estatuak, gobernuaren zein tokiko erakundeen bidez eta aurrekontuak eta araudia erabiliz, biztanleria guztiaren ongizatea, aberastasunaren birbanaketa eta aukera berdintasuna bermatzeko helburuarekin hartzen dituen neurrien multzoari deritzo. Bestera esanda, ongizate-estatu funtzio publikoa gauzatzean datza, hau da, estatuak ekonomian eta gizartean esku hartzean herritarren gehiengoaren baldintza sozioekonomikoak hobetzeko edo, berdina dena, klase sozialen arteko berdintasun ekonomiko eta sozial eza murrizteko.

Zentzu horretan, estatuak ongizatea bermatzeko eta aberastasuna birbanatzeko duten mekanismo edo tresna eraginkorrena politika fiskala da, hau da, zergak eta tasak. Izan ere, hauen bidez errentatik, ondaretik eta jarduera ekonomikoetatik diru sarrerak lortzen ditu, ondoren, interes orokorraren mesedetan, politika publikoak garatu ahal izateko.

Ongizate-estatuaren hastapenetatik gaurdaino, honen neurri ohikoenen artean kalitatezko osasun eta hezkuntza zerbitzuen doakotasuna eta unibertsaltasuna aurki ditzakegu [oinarrizko beharra, guztiontzako berdina]. Bestalde, lan eremuari dagokionean, lanpostua galtzen dutenentzako edo arrazoi ezberdinengatik lanik egin ezin dutenentzako (adina, ezgaitasuna...) prestazioak edo diru transferentziak dira neurri aipagarrienak [kasuan kasuko beharra, era duinean bizi ahal izateko kasu bakoitzari egokitutako gutxienekoa]. Gainera, urteek aurrera egin ahala eta estatuak beren horretan indartu ahala, herrialde garatuetan ongizate-estatuaren funtzioa geroz eta gehiago hedatzen joan da, besteak beste, garraio sare irisgarria, etxebizitza, gazteria, lana eta familiaren arteko uztarketa, mendekoen zaintza, jarduera ekonomikoa... eskuratzea edo garatzea errazteko laguntzak sortuz.

Neurrien ildo beretik jarraituz, Estatuak hainbat tresna edo bide ditu hauek herritar guztien eskura jartzeko: zerbitzu publikoak, prezioak eta antzekoak arautzen dituzten legeak, diru-laguntza totalak zein partzialak, errenta-transferentziak, espezieetan egindako transferentziak, subentzioak eta enpresa publikoak honen adibide dira.

Definizioa laburbiltzeko, ongizate-estatuaren sorrera bultzatu duen oinarrizko faktorean jarriko dugu arreta. Izan ere, orain arte aipatutako guztia ezin dugu sistema kapitalistaren eraginetik at ulertu. Estatuak bizitza pribatuaren eta publikoaren arteko bitartekari gisa eta lehentasunezko zerbitzu, ondasun eta prestazioen unibertsaltasunaren eta doakotasunaren bermatzaile gisa jardun behar badu, merkatuaren akatsek sortutako arrisku egoeren aurrean sektore zaurgarrienak babesteko da. Bestera esanda, sistema honetan, baliaezintasunez gain, pobrezia eraman dezaketen egiturazko hainbat arazo daude; horregatik, herritar orok uneoro gutxieneko bizi baldintza materialak bermatuta izateko mekanismoak izan behar ditu Estatuak. Beraz, ongizate-estatuak demokraziaren, gizarte ongizatearen eta kapitalismoaren arteko oreka bilatzen duen antolaketa eredu sozial eta politikoa dela esan dezakegu.


1.2.2.- GIZARTE ONGIZATEA

Aurrerapen ekonomiko eta sozialaz harago, ongizate-estatuaren existentzia da gizarte ongizatearen existentziaren arrazoia; lehenak bigarrena du helburu, eta bigarrenak, oraingoz behintzat, lehenaren beharra du. Beraz, bi kontzeptuok elkar loturik eta elkar eraginean daudela ulertu behar dugu. Era berean ulertu behar ditugu ongizate indibiduala eta kolektiboa, oro har, bata bestea baitakar; hau da, ongizateak dimentsio soziala izan behar du.

Hori horrela, gizarte ongizatea, une eta leku jakin batean, herritarren bizi kalitatea osatzen duten hainbat aldagai ekonomiko eta sozialen gogobetetze bateratua da. Oinarrizko gizarte premien gogobetetze maila hori, horren adierazle diren indize batzuen gaineko irizpide teknikoak aplikatuz neurtzen da, hala nola, errentaren banaketa, per capita sarrerak, langabezia tasa, pobrezia maila, gizarte bazterkeria arriskua, gastu soziala, kontsumo maila, osasun maila, hezkuntza maila, hiri-garapena, etxebizitzarako sarbidea, berdegune azalera, kutsadura maila, askatasun maila eta segurtasuna.

Hala ere, indize esanguratsuenetako bat bizi itxaropena dela esan dezakegu, hein handi batean, zerrendatu berri ditugun gainontzeko indizeen ondorio baita. Beheko grafikoan ikus dezakegunez, ongizate-estatuak herritarren bizi kalitatea eta ondorioz, bizi itxaropena hobetzen lagundu du, mende bateko epean, azken hau bikoiztuz eta egun 80 urte inguruan kokatuz.

Grafiko 1: Bizi itxaropena jaiotzean 1900-2011



Iturria: BBVA Research, www.bbva.com

1.3.- ONGIZATE-ESTATU EREDU ETA SAILKAPEN EZBERDINAK

Aurreko ataletan ikusi bezala, hainbat dira ongizate-estatu ezaugarritzen duten aldagaiak. Aldagai hauek abiapuntu eta oinarritzat harturik, ongizate-estatuaren sorreratik gaurdaino, zenbait adituk, R.M. Titmussek (1981) edo F. Castles eta D. Mitchellek (1993) esaterako, herrialde ezberdinetan garatutako ereduak multzotan sailkatu dituzte. Jakin badakigu horrelako sailkapenek zenbait muga dituztela, besteak beste, eredu bakoitza ezaugarritzen duten irizpideak mugatzea eta zehaztea zaila delako eta herrialdeen berariazko aldagaiak kanpo uzten dituztenez, beharbada, analisi erreduktionistegia egiten dutelako. Baina, aldi berean, parekotasun horrek, ikuspegi ezberdinen nondik norako orokorrak ulertzen laguntzen du eta beraz, erreferentzia esparrua ezartzeko baliagarriak izan daitezke.

Hori esanda, lan honetan Esping-Andersen hiru munduak izendatutako ereduak aztertuko ditugu, munduan hedatuen eta onartuen dagoen sailkapenetako bat baita.

1.3.1.- ESPING-ANDERSENEN HIRU MUNDUAK

Gosta Esping-Andersen (1993) soziologo daniarrak hiru arlo nagusi aztertu zituen: Estatuaren eta merkatuaren arteko harremana, estratifikazio soziala eta desmerkantilizazio maila, bere ustetan hiru aldagai edo printzipio horiek baitira edozein ongizate-estatu ereduren oinarriak.

- Estatuaren eta merkatuaren arteko erlazioa ongizatearen hornikuntzari dagokionean: ongizate-estatuaren egiturazko ezaugarria da hau. Publiko eta pribatuaren arteko nahasketari egiten dio erreferentzia eta horietako bakoitzak gizarte-eskubideak ze neurritan bermatzen dituen ezagutzean datza. Aldebiko harreman honetan Estatuari gizartean ematen diren ezberdintasunak edo bidegabekeriak zuzentzeko funtzioa esleitzen dio.

- Estratifikazio soziala: gizartearen antolaketa eredu kapitalista gizarte klaseetan oinarritzen da eta aldagai honek politika sozialek hauen arteko aldea areagotzen edo murrizten laguntzen duten neurtzen du.

- Lan indarraren desmerkantilizazio maila: aldagai honen bidez norbanakoek merkatuarekiko duten dependentsia edo autonomia maila neurtu nahi zuen, hau da, gizarte eskubideen bidez norbanakoek zein familiek bizi duin bat garatzeko duten ahalmena. Beraz, desmerkantilizazio maila herritarren botere emantzipatzailearekin eta eskubide sozialekin estuki lotuta ulertzen zuen, merkatuak merkantilizazio maila handitu eta Estatuak, aldiz, murriztu egiten duelarik. Bestalde, herrialde bakoitzaren desmerkantilizazio gaitasunaren atzean bi arrazoi nagusi daudela uste zuen: botere politikoa eta ondare historikoa, hain zuzen.

Beraz, Esping-Andersen arabera, ongizate-estatuak sailkatzeko, egiten, gastatzen eta arautzen dutena aztertzeaz gain, merkatuarekin elkar eragiteko duten modua aztertu beharra dago.

Azterketa horren ondorioak kontuan izanik, *The Three Worlds of Welfare Capitalism* liburuan (1993), hiru ongizate-estatu mota definitu zituen; beste aditu batzuen arabera, Luis Moreno (1995) eta Maurizio Ferrera (1996) esaterako, sailkapen honetara laugarren mota bat gehitu beharko litzatekeen arren. Jarraian bakoitzaren ezaugarri bereizgarrienak jaso ditugu.

- Eredu liberala edo anglosaxoia: Estatuak bere mendeko den langile klasearen beharrak baino ez ditu asetzen; beharra era objektiboan frogatu beharra dago eta laguntzak oso xumeak dira. Izan ere, eredu honek merkatua jartzen du erdigunean, hau izanik herritarren gehiengoak ongizatea eskuratzeko duen tresna. Ondorioz, ez dago ia desmerkantilizatorik, eskubide sozialen irismena oso mugatua da eta gizarte babesaren onuradunen (langile klasea) eta baliabide gehiago dituztenen (erdiko klasea) arteko klase dualismoa dago. Ezberdintasunak ezberdintasun, Australia, Estatu Batuak eta Kanada eredu honen adibide dira, liberalismoaren eragin nabaria eta merkatuaren mekanismoengan konfiantza handia duten herrialdeak alegia.

- Eredu kontserbadore korporatiboa edo europar kontinental: ahaidetasunean eta Estatuaren paper subsidiarioan oinarritzen da, hau da, Estatuak familiak huts egiten duenean baino ez du esku hartzen. Klaseen edo estatusen arteko hierarkia eta familia eredu tradizionala iraunaraztea helburu, Estatuak enpleguaren bidez egindako kotizazioen arabera ematen ditu prestazioak, betiere prestazioen bidez errentaren birbanaketa sustatu gabe. Beraz, desmerkantilizazio maila nahiko altua dela esan dezakegu. Tradizio katoliko, estatalista eta erreformista duten herrialdeak eredu honen adibide dira, hauen artean Austria, Frantzia eta Alemania.

- Eredu sozialdemokrata edo eskandinaviarra: zergapenean eta gizarte prestazioen unibertsaltasunean oinarritzen den eredu da eta beraz, Estatuak herritar guztien beharrak asetzen ditu. Bestera esanda, desmerkantilizazio maila ia erabatekoa da eta norbanakoen eskubide berdintasuna zein klaseen arteko elkartasuna sustatzen du, hala, merkatuarekiko zein familia eredu tradizionalarekiko menpekotasuna murriztuz. Bai gizarte arazoak minimizatzeko bai prestazioen unibertsaltasuna bermatzeko ezinbestekoak diren diru sarrerak maximizatzeko, emakume zein gizonen enplegu osoa bermatzen saiatzen da. Eredu hau Europa iparraldeko herrialde gehienetan ezarritako eredu da, honen adibiderik gorena Suedia izanik.

- Eredu mediterraneo: Esping-Andersenek egindako sailkapenari gehitutako eredu da hau, Europa hegoaldeko herrialdeen errealitatea hobeto islatzeko asmoz sortua. Moreno Fernándezek *El estado del bienestar en la Europa del Sur* (1995) liburuan jasotakoaren arabera, herrialde hauek hurrengo ezaugarriek batzen dituzte, baita aurreko eruedetatik bereizi ere: prestazio unibertsalak eta merkatupeko prestazioak konbinatzen dituzte; lan prestazioak nahiko oparoak diren arren, gizarte kotizazioen bidez finantzatzen diren heinean, lanpostu duinen eta lanpostu prekarioen arteko aldea handia da eta, gainera, lurpeko ekonomiak berebiziko pisua du; eta familiako kideen artean baliabideak konpartitzeko joera dago, eskala txikian edo maila mikroan bada ere, aberastasuna birbanatuz eta familia ongizatea lortuz. Azken honek, ordea, gizarte politiken garapen urriagoa eragin du, familia jotzen baita babesaren hornitzailetzat. Hauen artean, Grezia, Italia, Espainia eta Portugal daude.

2.- ONGIZATE-ESTATUAREN FINANTZAKETA

Aurreko puntuan gaur egun munduan hedatuen dauden ongizate-estatu ereduak bakoitzak eskaintzen dituen bermeak aztertu ditugu, baita berme horien onuradunak nortzuk diren ere. Jarraian, hauen finantzaketan sakonduko dugu; nork, zenbat, nola, zertarako biltzen duen dirua.

Ongizate-estatuaren finantzaketa, eskaini nahi diren zerbitzuen, bermatu nahi diren eskubideen eta esku hartzeko erabili nahi diren tresnen araberakoa da. Bestera esanda, Estatuak, lehenik eta behin, bere gain hartuko dituen gastuak zehaztu behar ditu eta, ondoren, horiek nola edota zeren bidez ordainduko dituen planifikatu behar du. Edozein kasutan, ongizate-estatuak desagerrarazi nahi dituen bidegabekeriak zerga politika egokia diseinatuz murriztu daitezkeela ikusiko dugu, horretarako, zerga sistema eta gastu publikoa baliatuz.


2.1.- FINANTZAKETA LORTZEAREN ARDURADUNA: ESTATUA

Ongizate-estatuaren finantzaketari dagokionean, herrialde ezberdinetako konstituzioek bi ideia nagusi jasotzen dituzte: batetik, herritar guztiek gastu publikoari eusten laguntzeko betebeharra dute eta, bestetik, Estatuak edo Gobernuak dirua biltzeko beharrezkoak diren tributuak sortzeko eta ezartzeko ahalmena du, betiere Parlamentuak onartutako legeen bidez egiten bada.

Halere, estatu modernoetan deszentralizazio maila ezberdinak daude. Beraz, herrialde bakoitzak bertoko erakunde ezberdinen eskumenak arauen bidez mugatu eta zehaztu behar ditu.

2.1.1.- ESTATU ESPAINIARRREKO FINANTZAKETA-SISTEMA


Eskema 1: Estatu Espainiarreko finantzaketa-sistemaren antolaketa (arabide komuna)



Iturria: norberak egin

Araubide komuna, EAE eta Nafarroan ezik, Estatuko autonomia erkidego guztietan eta Ceuta eta Melillan indarrean dagoen finantzaketa-sistema da eta honen arauketa Autonomia Erkidegoen Finantzaketari buruzko Lege Organikoan (LOFCA) oinarritzen da.

Irudia 1: Araubide komuneko autonomia-erkidegoen finantzaketa



Kasu honetan, irudian ikus dezakegunez, erkidegoek bi baliabide ekonomiko erabiltzen dituzte finantzaketa lortzeko:

Batetik, lagatako tributuak, hau da, Gobernu Zentralak erkidegoei, legegintza askatasun jakin batzuekin, %100ean edo neurri batean, lagatako estatu tributuak.

Eta bestetik, funtsak, autonomia erkidegoek eta Gobernu Zentralak finantzatuak. Funts hauek erkidego bakoitzaren beharren arabera banatzen dira, normalean, biztanle kopurua irizpidetzat erabiliz.

Iturria: Enzimum, www.enzimum.es

Bestalde, esan beharra dago, Estatuko Administrazioa tributu propioen eta %100ean laga ez dituen tributuen bidez finantzatzen dela.

Araubide komunaz gain, Estatu Espainiarrean beste bi finantzaketa-sistema daude, biak ala biak foru araubidearen baitakoak:

- Kontzertu Ekonomikoa: Euskal Autonomia Erkidegoa osatzen duten hiru lurralde historikoetan dago indarrean. Hurrengo puntuan honen berezitasunak eta funtzionamendua aztertuko ditugu.
- Hitzarmen Ekonomikoa: Nafarroako Foru Erkidegoan dago indarrean eta Kontzertu Ekonomikoarekin antzekotasun ugari ditu.

Grafikoa 2: Erkidego guztietan kupoa aplikatuko balitz bilketan jasango luketen aldakuntza

Fedea-ren txosten baten arabera, aipatutako kupodun finantzaketa-sistema hauek araubide komuna aplikatzen zaien autonomia erkidegoei aplikatuko balitzaizkie, lau erkidegok egun baino diru gehiago jasoko lukete: Madrilek, Balearrek, Kataluniak eta Valentziak, hain zuzen ere. Kontrara, gainontzekoek egun baino diru gutxiago jasoko lukete, bereziki Kanariak (ia %84 gutxiago edo, dirutan adierazi ezkerre, 4.200 milioi euro gutxiago). Beste kaltetuak honako hauek lirateke, kalte gehien jasango lukeenetik hasita hurrenkera honetan: Extremadura, Errioxa, Gaztela-Mantxa, Galizia, Andaluzia, Gaztela eta Leon, Murtzia, Kantabria, Aragoi eta Asturias.

Financiación de las comunidades de régimen común
En millones de euros

	ACTUAL (Datos 2015)	CON CUPO	Variación (%) PERDERÍAN GANARÍAN
Madrid	14.370	22.408	54,8
Baleares	2.793	3.601	31,4
Cataluña	17.160	20.895	21,4
Valencia	10.510	10.965	4,0
Asturias	2.729	2.721	-0,3
Aragón	3.478	3.346	-4,0
Cantabria	1.713	1.540	-12,5
Murcia	3.208	2.723	-14,3
Castilla y León	6.719	5.763	-15,2
Andalucía	18.578	15.310	-17,0
Galicia	7.205	5.818	-20,1
Castilla - La Mancha	5.068	3.966	-21,8
La Rioja	927	754	-22,5
Extremadura	3.090	1.937	-42,7
Canarias	5.161	961	-83,7
Total/Media	102.710	102.710	

Fuente: Fedea

Iturria: Fedea, www.fedea.net

2.1.2.- EAE-KO FINANTZAKETA-SISTEMA

EAE-ko finantzaketa-sistema berezia dela esan dezakegu. Izan ere, estatu propiorik izan ez arren, autonomia erkidegoak finantzaketa-sistema propioa du eta, honi esker, Estatuko zerga gehienak ezartzeko, arautzeko, ikuskatzeko, likidatzeko, biltzeko eta kudeatzeko ahalmena du. Labur esanda, EAE-k finantzaketan autonomia maila altua du.

Aipatutako guztia, iraganeko bi lorpeni esker egin dezake egun: batetik, XIII. mendean, Bizkaiko Jaurerria Gaztelako Koroan sartu zenean, Bizkaiak, Gipuzkoak eta Arabak, Foruen bidez, bertoko instituzioak eta legedia mantendu izanari esker eta, bestetik, XIX. mendean, Antonio Cánovas del Castellorekin orduko finantzaketa-sistemaren nondik norakoak negoziatzerakoan, Kontzertu Ekonomikoa deritzon eskubide historikoa hitzartu izanari esker.

Puntu hau lantzeko, Kontzertu Ekonomikoa Sustatzeko eta Zabaltzeko Ad Concordiam Elkartek bere web orrian eta El Correo egunkariak artikulu batean jasotako informazioa baliatuko dugu.

2.1.2.1.- Kontzertu Ekonomikoaren ezaugarritzea

Esan bezala, Kontzertu Ekonomikoa EAE-k finantzaketa publikoa lortzeko erabiltzen duen sistema da. Sistema honen bidez EAE-ren eta Estatu Espainiarraren arteko finantza- eta zerga-harremanak ezartzen eta arautzen dira; beraz, berdinen arteko aldebiko akordioa da. Alor politikoari dagokionean, alderdi politiko guztien oniritzia du, Vox eta Ciudadanosena izan ezik.

Egun indarrean dagoen 1978ko Konstituzioak Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako eskubide historikoen adierazpen gisa definitzen eta onartzen du Kontzertua. Eskubide historiko horiek euskal foru lurraldeei aitortutako lurralde eskubideak dira, izaera politikodunak eta Konstituzioa idatzi aurrekoak. Era berean, Konstituzio honek, foru araubidearen eguneratzea Konstituzioaren eta Autonomia Estatutuen esparruan egingo dela jasotzen du.


Beraz, Kontzertu Ekonomikoaren ezaugarri bereizgarrienak honako hauek dira:

- Itundua: oinarrizko erabakiak EAE-ko (Foru Aldundi bakoitzeko bana + Eusko Jaurlaritzako 3) eta Estatuko (6 pertsona) ordezkari osatutako batzorde paritarioetan hartzen dira. Hitzartutako edukia legeen bidez onartzen da eta Espainiako Parlamentuak ezin ditu lege horiek aldatu.
- Historikoa: 1878 urtean onartu zen lehen aldiz, euskal lurraldeak Estatuko sistema ekonomikoan integratzeko helburuarekin.
- Konstituzionala: 1978ko Espainiako Konstituzioaren lehen xedapen gehigarriak hurrengo dio "Konstituzioak foru-lurraldeen eskubide historikoak babesten eta errespetatzen ditu".
- Solidarioa: EAE-k, bere aberastasunaren proportzioan, gastu komunen finantzaketan laguntzen du. Horrez gain, Lurraldeen arteko Konpentsazio Funtsa finantzatzen laguntzen du.
- Alde bakarreko erantzukizuna edo arriskua: Kontzertu Ekonomikoaren kudeaketatik eratorritako emaitzak, onak zein txarrak izan, EAE-ri bakarrik dagozkie. Hau da, bere finantzen egoera edozein dela ere, EAE-k Estatuaren gastu komunen finantzaketan lagundu behar du.

2.1.2.2.- Kontzertu Ekonomikoaren funtzionamendua

Kontzertu Ekonomikoak aitortzen dituen eskumenei esker, EAE-k bertoko herritarrek ordaintzen dituzten zergak biltzeko, ikuskatzeko eta kudeatzeko ahalmena du.

Eskema 2: EAE-ko sektore publikoaren antolaketa



Iturria: Ignacio Zubiri, UPV/EHU

Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udalen jarduna diru-sarrera horien bidez finantzatzen da, baina, baita Estatuarena ere.

Izan ere, azken horri dagokionean, EAE-k bere gain hartu ez dituen eta, beraz, Estatuak ematen dizkion zerbitzuak (izan Estatuaren eskumen eksklusiboak direlako, izan Estatutuan jasota egon arren, oraindik transferitu ez direlako) finantzatzen laguntzen du, horretarako, Gobernu Zentralari urtero kupoa deritzona ordainduz. Hau da, EAE-k bere egiten ez dituen Estatuaren kargei dagokien kontribuzioa da kupoa.

Zentzu horretan, ezkerreko eskeman jaso bezala, Lurralde Historikoen, hau da, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabak, Batzar Nagusien bidez, herritarrek ordaindu beharreko zergak eta hauen zenbatekoa erabakitzen dituzte. Bestera esanda, tributuen gaineko arau propioak zehazteko eta onartzeko eskumena dute, Estatu legediak horiei buruz ezartzen duena kontuan izateko beharrik gabe, betiere Estatuak duen antzeko presio fiskala mantentzen badute. Bestalde, Foru Aldundiak aipaturako zerga horiek kudeatzeaz eta biltzeaz arduratzen dira. Eta Eusko Legebiltzarrak hiru lurraldeen arteko, koordinazio-, harmonizazio- eta lankidetzaz-erlazioak baina ez ditu. Horrez gain, hauen eskumenak nahiko mugatuak badira ere, udaletxeek tasa eta zerga zehatz batzuk ezartzeko eta biltzeko eskumena dute.

Bestalde, Kontzertu Ekonomikoak Estatuko zerga-sistema osatzen duten 24 zergak hartzen ditu bere gain. Ondorioz, hauek hurrengo bi multzoetan sailkatu beharra dago:

- Araudi autonomodunak, hau da, hiru Lurralde Historikoetako Batzar Nagusiek araututakoak, ezberdinak izan daitezke bai beren artean bai Estatuko gainontzeko lurraldeetan indarrean daudenekiko. Hauen adibide dira, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga, Sozietateen gaineko Zerga, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga, Ondare Eskualdaketen gaineko Zerga, Egintza Juridiko Dokumentatuak eta Ondarearen gaineko Zerga; sei zerga hauen artean lortzen duen bilketa zerga guztien artean lortzen duen bilketaren %46a baino gehiago da.

- Ordea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga, inportazio eskubideak eta zerga berezietan eragiten duten inportazio kargak, Estatuko araudi eta tasa berdinen arabera arautu behar dira, prezioetan distorsiorik ez sortzeko eta lehia desleiala ekiditeko. Mota honetako zergen bidez bilketa guztiaren %42a inguru biltzen du.

2.1.2.3.- Kontzertu Ekonomikoaren abantailak eta desabantailak

Oro har, Kontzertu Ekonomikoa onuragarria da EAE-rentzat, honek autogobernua garatzeko eta bere eskumen guztiak finantzatzeko nahikoa baliabide eskuratzea ahalbidetzen baitio.

Horri esker, EAE osasungintzan, hezkuntzan, gizarte-zerbitzuetan eta beste hainbat arlotan biztanleko gastu handiena egiten duten autonomia erkidegoen artean kokatzen da. Horrez gain, errepideetan Estatuan baino inbertsio handiagoa egiteko aukera eman dio, baita industria babesteko, pobreziaaren aurka borrokatzeko edo euskara bultzatzeko neurrietan gastu publiko handia egiteko aukera ere, besteak beste. Laburbilduz, Kontzertu Ekonomikoak politika publiko propioak burutzeko eta, honen bidez, Ongizate Estatua indartzeko aukera ematen dio EAE-ri.

Gainera, Aurrekontuak egiterako orduan, Kontzertu Ekonomikoak autonomia handia ematen die euskal erakundeei, neurri handi batean, ez baitute Ogasun Ministerioaren funts ekarpenekiko menpekotasunik.

Era berean, erakundeak herritarrengandik hurbil egoteak, herritarrek ordaintzen dituzten zergak eta jasotzen dituzten zerbitzuak haien benetako beharretara egokitzea ahalbidetzen du.

Hala ere, aipatzekoa da Estatuak Kupoaren bidez jasotzen duen diru kopurua baino gutxiago gastatzen duela EAE-n. Eustateko datuen arabera, 2001 eta 2013 bitarte, aldea 15.000 milioi eurotik gorakoa izan zen. Aldi berean, EAE-k Estatuaren gastuen %6,24a ordaintzen du. Ehuneko horrek gaur egun EAE-k Estatuko ekonomian duen pisua gaintzen du, hau %6,21 ingurukoa baita, eta Kontzertu Ekonomikoa indarrean egon den urte gehienetan kalte egin dio. Hori gutxi ez eta biztanleriagatik legokiokeen %4,5aren oso gaintetik dago.

EAE-ko zerga-sistema alde batera utzita, finantzaketaren hasierako planteamendura itzuliko gara. Estatu batek tributuak ordaintzeko betebeharra ezartzearen atzean arrazoi ugari daude, aurreko atalean hainbatetan aipatu bezala, garrantzitsuenak gastu publikoari eustea, errenta birbanatzea, ekonomiaren eraginkortasuna handitzea eta krisiak leuntzea izanik; laburbilduz, herrialdeak ekonomikoki zein sozialki aurrera egitea.

Hori guztia lortzeko, nahitaez, behar adina diru bilduko duen eta hazkunde ekonomikoa zein enpleguen sorrera maximizatuko dituen zerga sistema justu bat behar da; eta, aldi berean, Estatuak gastu publikoa era eraginkorrean kudeatzeko eta kontu publikoen bideragarritasuna eta egonkortasuna bermatzeko konpromisoa hartu behar du.

Horretarako, Estatuak tokiko presio fiskala eta egitura fiskala definitu behar ditu.

2.2.- PRESIO FISKALA

2.2.1.- PRESIO FISKALA KONTZEPTU GISA

Presio fiskala herrialde bateko sektore publikoak Barne Produktu Gordinarekiko biltzen duen tributuen guztizkoa da, hau da, zergapekoengandik jasotako tributu-sarreraren eta BPG-ren arteko erlazioa adierazten duen termino ekonomikoa da.

Definizio teknikoa hori bada ere, argipen batzuk egitea beharrezkoa da. Lehenik, tributuen ordainketari egiten dio erreferentzia, ez zergen ordainketari; aurrerago ikusiko dugunez, zerga guztiak tributuak dira, baina tributu guztiak ez dira zergak, tributuak zergak baino gehiago dira. Bigarrenik, zergapeko guztiak hartzen ditu kontuan; familiak eta enpresak zergapekoak dira bai, baina ez dira Ogasunarekiko betebeharra duten bakarrak. Eta hirugarrenik, ordaintzen dena (benetako bilketa) kontuan izanik kalkulitzen da, eta ez ordaindu beharko litzatekeena (bilketa potentziala) kontuan izanik.

Azken ideia hori bereziki garrantzitsua da. Izan ere, askotan, presio fiskala ordaindu beharreko zerga kopuruarekin lotzen dugu eta beraz, Administrazio publikoak zenbat eta zerga gehiago edo altuagoak ezarri, herrialdeak orduan eta presio fiskal handiagoa izango duela uste dugu. Berez, gainontzeko faktoreak konstante mantenduko balira, hori horrela litzateke, baina, normalean, faktoreok aldaketekiko sentikorrak dira. Horregatik, baliteke, zergak igo ezker, zerga-ihesa egotea eta, ondorioz, presioa ez handitzea edo txikitzea ere.


Horrez gain, honako hauek dira herrialde bateko presio fiskala baldintzatzen duten faktoreak: zerga-sistemaren egitura, erregimen politiko eta ekonomikoa, ezaugarri demografikoak, egitura ekonomikoa, garapen maila, faktore kulturalak edota erakundeen kalitatea.

Hori guztia horrela, presio fiskala hurrengo formula erabiliz kalkulatzen da: $PF = (SF / BPG) \cdot 100$ non PF = presio fiskala eta SF = sarrera fiskalak edo sarrera tributarioak diren. BPG erreferentziatzat hartzen duenez, magnitudea ehunekotan adierazten da.

2.2.2.- MUNDUKO HERRIALDE EZBERDINETAKO PRESIO FISKALA

Beheko irudian munduko herrialde ezberdinek 2021 urtean jasandako presio fiskala ikus dezakegu. Agerikoa da herrialde aberats eta garatuenek gainontzekoek baino presio fiskal altuagoa dutela. Hala ere, salbuespenak egon badaude, AEB esaterako.

Irudia 2: Munduko herrialde ezberdinen presio fiskala 2021ean (BPG %-tan)



Iturria: Datosmacro, www.datosmacro.expansion.com

A. Molina Morales, I. Amate Fortes eta A. Guarnido Ruedak burututako azterketa baten arabera, herrialde garatuen eta ez garatuen arteko ezberdintasun honen atzean 4 arrazoi nagusi daude:

Lehena, gastu publikoa da. Izan ere, herrialde garatuek, herritar orok bizi duin bat garatu ahal izateko gutxieneko beharrak asetzen dituzte. Horretarako beharrezkoak diren mekanismo zein baliabideak finantzatzeko, administrazioek, nahitaez, diru sarrerek lortu behar dituzte. Hurrengo puntuan ikusiko dugunez, diru sarrera hauek, gehienbat, zergen bidez biltzen dituzte eta ondorioz, normala da herrialde garatuen presio fiskala garapen bidean daudenena edo azpigaratuena baino altuagoa izatea.

Bigarrena, demografiarekin eta administrazioak honen gainean duen kontrolarekin lotuta dago. Izan ere, herritarren errolda eguneratuta mantentzeko zailtasuna duten herrialdeek tributatu gutxiago biltzen dituzte, zergadun berriak erregistratzeko zailtasunak dituztenez ezin baitituzte zerga zuzenak behar bezala kobratu. Gainera, herrialde garatuetan ez bezala, ez garatuetan hazkunde demografikoa handia da eta, ondorioz, arazoa areagotu egiten da.


Hirugarrenak herrialdeko ekonomiaren eta herritarren garapen mailarekin du zerikusia; ekonomiak duen pisuarekin, per capita errenta mailarekin, merkataritzaren irekitasun eta espezializazio mailarekin, ekoizpen egiturarekin, urbanizazio mailarekin, analfabetismo mailarekin eta finantza sistemaren formaltasun mailarekin, besteak beste.

Adibide bat ipintzearren, zenbat eta altuagoa izan langileen soldata eta hauen gaitasun ekonomikoa, orduan eta altuagoa izan ahalko da errentaren gaineko zergaren bidez bildutakoa eta, beraz, presio fiskala ere bai. Era berean, garapen ekonomiko maila altuak presio fiskal altua izateko aukera eskaintzen du, sektore batzuen jarduera ekonomikoa zergapetzea beste batzuen zergapetzea baino errazagoa baita. Hori dela eta, hirugarren sektorean oinarritutako herrialdeek lehen sektorean oinarritutako herrialdeek baino presio fiskal altuagoa dute.

Azkenik, laugarrenak, demokraziaren ezarpen mailari eta boterea duen alderdi politikoari edo agintariari egiten dio erreferentzia, honek bi azalpen dituelarik. Batetik, instituzioak eraginkorrek eta fidagarriak diren herrialdeetako herritarrek, zergak ordaintzeko prestutasun handiagoa dute. Bestetik, gobernu eskuindarrek gastu publikoa murriztearen eta zergak jaistearen alde egin ohi dute, gobernu ezkertiarrek kontrakoaren alde egiten duten artean. Orokorrean, herrialde garatuak demokratikoagoak eta aurrerakoiagoak dira.

Herrialde garatuen eta ez garatuen arteko aldea handia bada ere, herrialde aberatsei bakarrik erreparatu ezker, kasu honetan OCDE osatzen duten herrialdeei erreparatu ezker, hauen arteko aldea ere nabaria dela ikus dezakegu. Oraingoan, ordea, arrazoi nagusiak Estatuak ekonomian duen esku hartze maila eta ongizate-estatuak bermatzen duen prestazio maila direla ikusiko dugu.

Grafikoa 3: OCDE-ko herrialdeen presio fiskala 2018an (BPG %-tan)



Iturria: OCDE, www.epdata.es

Horretarako, Esping-Andersenek egindako sailkapena baliatuz, ongizate-estatu eredu bakoitzeko herrialde banaren presio fiskala aztertuko dugu. AEB (eredu liberala), Alemania (eredu kontserbadore korporatiboa), Suedia (eredu sozialdemokrata) eta Espainia (eredu mediterraneo) hautatu ditugu, eredu bakoitzaren adierazpen gorenak baitira.

2018 urtean aipatutako herrialdeen presio fiskala %24,33, %38,2, %43,93 eta %34,4-koa zen hurrenez hurren. OCDE-ko batez bestekoa, aldiz, %34,19-koa zen. Datu hauek aipatu berri ditugun bi arrazoen erakusle dira.


Izan ere, eredu sozialdemokratan Estatuak ekonomian duen esku hartzea handia da eta herritarrei eskaintzen dizkien prestazioak ugariak dira. Eredu kontserbadore korporatiboak eta eredu mediterraneoak, aldiz, eredu misto baten alde egiten dute. Hori dela eta, presio fiskala zertxobait baxuagoa da, batez bestekoaren bueltan kokatuz, eta ongizate-estatua bera ere ahulagoa da. Azkenik, eredu liberalak merkatua jartzen du erdigunean. Ondorioz, presio fiskal baxuena duen eredu da eta Estatuak asetzen dituen beharrak oinarritzkoenak baino ez dira.

Horrez gain, balio erantsi nahikoa sortzen duten sistema lehiakorrek izateak norbanako zein enpresek beren gain har ditzaketen tributu altuak ezartzea ahalbidetzen die, honek ekonomia kaltetu gabe. Beraz, oro har, estatuen ekonomiek pisua eta konplexutasuna irabazten duten heinean, presio fiskala handitzeko joera dutela baieztatu dezakegu.

Amaitzeko, aipatzekoa da OCDE-ko herrialde batzuetan ezkutuko ekonomiak, ustelkeriak eta iruzurrak eragin handia dutela; ondorioz, herrialde hauetako presio fiskala murriztuz, edo, hori gertatzen ez den kasuetan, presioa, gehienbat, soldatapeko erdiko klaseari jasanaraziz.

2.2.3.- ESTATU ESPAINIARREKO AUTONOMIA ERKIDEGOETAKO PRESIO FISKALA

Grafikoa 4: Estatu Espainiarreko autonomia erkidegoetako presio fiskala 2018an (BPG %-tan)



Esan bezala, 2018 urtean Espainiako batez besteko presio fiskala %34,4koa izan zen, hau da, bertoko herritarrek soldataren herena zergak ordaintzera bideratzen zuten. Dena den, estatuen artean bezala, autonomia erkidegoen artean aldeak nabariak izan ziren, altuenaren eta baxuenaren arteko aldea ia 17 puntukoa izanik.

Bestalde, EAE-ri dagokionean, presio fiskala %32,41ekoa izan zen, Estatu batez bestekoa baino pixka bat baxuagoa.

Iturria: Ogasun Ministerioa, www.cinco dias.elpais.com

2.3.- EGITURA FISKALA

2.3.1.- EGITURA FISKALA KONTZEPTU GISA

Egitura fiskalak bi alderdi aztertzen ditu: Batetik, herrialde bateko tributu-sarreraren elementu nagusiak zeintzuk diren identifikatzen du, hau da, tributu kopurua, mota eta bakoitzak biltzen duen zenbatekoa zein guztizkoarekiko ehunekoa. Bestetik, tributu horien zehaztasunak aztertzen ditu: zein den zergatzen den egintza, zein kasutan ez den zergaren ordainketa gauzatzen, zeintzuk diren zerga ordaindu behar duten subjektuak, zeintzuk diren egin daitezkeen deskontuak, zeintzuk diren aplikatu beharreko tasak eta abar. Ondorengo puntuetan aipatutako bi alderdi hauek izango ditugu aztergai.

2.3.2.- SARRERA PUBLIKOEN ITURRI NAGUSIAK

Sarrera publikoak Sektore Publikoak gastu publikoari aurre egiteko biltzen dituen baliabideak dira. Sarrera hauen iturri nagusia tributuak izan ohi dira (zerga zuzenak, zeharkako zergak, tasak eta kontribuzio bereziak) eta hauen artean zergak; baina badira beste iturri batzuk ere.

Hori esanda, diru-iturriak hiru multzotan sailkatuko ditugu. Bilketaren guztizkoaren gain pisu gutxien dutenetatik hasiko gara eta ekarpen gehien egiten dutenekin bukatuko dugu.

2.3.2.1.- Zor publikoa

Sektore Publikoak gastu publikoei eusteko baliabide nahikorik ez duenean erabili ohi duen aterabidea da. Merkatuek (inbertitzaile partikularrek edo beste herrialdeek), beharra duen Estatuari, dirua maileguan uztean datza, horren truke, bi aldeen artean hitzartutako epean, errentagarritasun bat jasoz. Beraz, tresna honek, likidezia arazoak dituen herrialdeari, gastuak denboran atzeratzea ahalbidetzen diola esan dezakegu.

Izan ere, Estatu batek, arrazoi ezberdinengatik (krisi garaian ekonomia suspertzeko diru gutxiago biltzea eragiten duten neurriak hartu izanagatik, ezohiko gastuak izatea suposatzen duen inbertsio publiko handi bat egin izanagatik...), defizit publikoa duenean, hau da, sarrera baino gastu gehiago dituenean, besteren finantzaketa-iturriak erabili behar ditu.

Horretarako, finantza-aktiboak jaulkitzen ditu, hauen artean ohikoenak zor-tituluak izanik (altxorraren letrak, bonuak eta obligazioak). Jaulkipen horien interes tasa merkatuek dirua jasoko duen Estatuarengan duten konfiantza mailaren arabera izan ohi da, hau da, Estatuak etorkizunean diru hori ordaintzeko edo itzultzeko probabilitatearen arabera. Hori dela eta, herrialdeen interes-tasak ezberdinak izan daitezke. Hauen arteko aldeari arrisku-prima deritzo.

Beraz, herrialde baten zor publikoa bertoko administrazio publiko guztien zorren batura da, jatorrizko mailegua bera eta honen interesak barne hartzen dituena, eta BPG-aren ehuneko gisa adierazi ohi da. Era berean, jatorriaren, iraupenaren, monetaren, herrialdearen, tresnaren... arabera mota ezberdinetakoa izan daiteke.

Amaitzeko, esan beharra dago, hasieran aterabide gisa definitu dugun arren, maileguan eta, gainera, interes baten truke eskatutako dirua den heinean, kontrolatu beharreko zerbait dela. Izan ere, diru horrekin lortutako etekina zorra baino handiagoa izan ezean, beharrak zor publiko gehiago jaulkitzera bultzatu dezake estatua eta, azkenean, ordaindu ezingo duen gehiegizko zorpetzea izango du, herrialdeak ekonomikoki zein sozialki aurrera egitea oztopatuz. Hori ekiditea helburu, herrialdearen egonkortasun ekonomikoa ahalik eta arinen berreskuratzea ezinbestekoa da, baita epe ertainean kaudimena handitzea ere, horretarako, beharrezkoa izanez gero, Gobernuak hainbat neurri har ditzakeelarik.

Hori da, hain zuzen ere, Estatu Espainiarrean gertatu dena. Estatu Espainiarraren zor publikoaz ari garenean, Estatu Zentralaren, Gizarte Segurantzaren, autonomia erkidegoen eta tokiko administrazioen zorren baturaz ari gara. 2007 urtean, krisi ekonomiko eta finantzarioak eztanda egin aurretik, estatu honek 383.798 milioi euroko zor publikoa zuen. Espainiako Bankuak eskainitako datuen arabera, 2021eko abenduaren 31n, zor hori 1,427 bilioi eurokoa zen, 14 urte lehenagokoaren ia laukoitza eta herrialdeko BPG-aren %118,4a.

Hazkunde honen arrazoi nagusia zergen bidez lortutako bilketa urteko gastuei (pentsioak, langabezia prestazioak, bankuentzako laguntzak, Europako erreskatea...) aurre egiteko gai baino ez izatea da, hau da, ez dago zorra ordaintzeko dirurik soberan. Gainera, Covid19ak eragindako krisi sanitario, baina, baita sozial eta ekonomikoak, ezintasun hori areagotu besterik ez du egin. Hala ere, arrazoi berdinetatik, urte bukaeratik aurrera zenbateko hori murriztea aurreikusten da. Gainera, zor horren %93,1a epe luzerakoa da, epe laburrerakoa soilik %6,9a izanik.

EAE-ri dagokionean, Eusko Jaurlaritzaren hitzetan, honen zorpetze politikak ondorengo printzipio orokorrak ditu oinarri eta helburu: merkatuak dibertsifikatzea, zorpetzearen kostua minimizatzea, zorpetzea politika ekonomikoari lotutako ekintzekin koordinatzea eta baloreen bigarren mailako merkatuen eraginkortasuna handitzea.

Datuei erreparatuz gero, 2021eko abenduaren 31n, EAEko zor publikoa 10.594,32 milioi eurokoa zen, BPG-aren %15,6a eta aurrekontuaren %75,64a, hain zuzen. Bilakaerari erreparatuz gero, 2007tik zor publikoa urtez urte handituz joan dela ikus dezakegu, 2019 urtea salbuespena izanik. Bitarte honetan, zor publikoa 10.292,45 milioi eurotan handitu da. Hala ere, kalifikazio agentziek (Standard & Poor's, Moody's eta Fitch Ratings prestigiodunak tarteko) EAE-ren kreditu kalifikazioa eskalaren zatirik altuenean kokatzen dute.

2.3.2.2.- Hainbat sarrera ez finantzario

- Tasa: Kontsumitzaile edo erabiltzaile batek jabari publikoko ondasun edo zerbitzu baten erabilera pribatiboaren truke ordaindu beharreko zenbatekoa da, betiere legedian jasotako derrigorrezko ordainketa bada eta sektore pribatuak ez badu zerbitzu baliokiderik eskaintzen. Aipatzekoa da, jarduera horietako asko eta asko, bizitzarako oinarrikoak edo ezinbestekoak direla. Tasa motei dagokienean, estatuko tasak, tasa autonomikoak, tokiko tasak eta administrazio tasak dira ohikoenak eta diru gehien biltzen dutenak. Titulu ofizialak eskuratzeko, NANA edo pasaporteak luzatzeko, bide publikoan terrazak jartzeko edo kotxea aparkatzeko, aireportuak erabiltzeko, ur-hornidura jasotzeko... ordaindu beharrekoak honen adibide dira.

- Kontribuzio berezia: Sektore Publikoak burututako herri-lan bati esker edota zerbitzu publikoak ezartzeari zein zabaltzeari esker, herritarrek bizi kalitatean lortutako mozkinaren edota higiezin pribatuetan sortutako hobekuntzen edo balio gehikuntzaren ordainketan datza. Hauen ezarpena tokiko erakundeen esku dago eta ordainketa horrek ezin du inbertsio publikoaren kostua gainditu, bildutako dirua sortutako gastua ordaintzeko bakarrik erabil baitaiteke. Honen adibide dira, besteak beste, lursailaren balioa handitu dezakeen metro geltokia sortzea, kaleak asfaltatzea, enparantzak eraikitzea eta ura banatzeko sareak instalatzea.

- Prezio publikoa: Borondatez eskatutako zerbitzu publiko baten erabileraren truke ordaindu beharreko zenbatekoa da. Kasu honetan, jarduera edo zerbitzu hori sektore pribatuak ere eskaintzen du, hau da, sektore publikoak ez du horren gaineko monopoliorik. Bestalde, tasak ez bezala, jarduera hauek osagarriak dira, hau da, ez dira bizitzarako ezinbestekoak. Honen zenbatekoari dagokionean, gutxienez jarduera edo zerbitzu emate horrek dituen kostuak estali behar ditu eta eskaintzen duen erabilgarritasunaren parekoa izan behar da. Hala ere, interes publiko edo sozialeko arrazoiak medio, kostua baino merkeagoa izan daiteke. Unibertsitateko matrikula eta museorako edo igerilekurako sarbidea, esaterako, honen adibide dira.

- Horiez gain, ondarearen sarrerak (dibidenduak, interesak, alokairuak...), aktiboen salmentak (partaidetzen salmenta, higiezin salmenta...), jasotako transferentziak (covid19aren harira EBk emandako berreskuratze funtsak...) eta isunak ere sarrera ez finantzarioen adibide dira.

Beraz, sarrera ez finantzario hauen arteko ezberdintasunak ezberdintasun, ikusi dugunez, guztiek hainbat ezaugarri amankomun dituzte, horietako bi bereizgarrienak izanik: Batetik, zuzeneko kontra prestazioen truke administrazioak jasotako ordainketak dira, hau da, onuraren printzipioan oinarritzen dira; hori horrela, jarduera edo prestazioak burutzen edo jasotzen direnean bakarrik ordaintzen dira. Bestetik, ez dute herritarren ahalmen ekonomikoa kontuan hartzen, hau da, ordaindu beharrekoak zergapekoen artean kopuru berdinetan banatzen da.

Hurrengo puntuan ikusiko dugunez, aipatu berri ditugun ezaugarriak zergengandik ezberdintzen dituzten ezaugarri edo arrazoi ia berdinak dira.

2.3.2.3.- Zergak

Jarduera publikoaren finantzaketan laguntzeko sektore publikoak sektore pribatuari, gertaera, egintza edo negozio jakin batzuen harira, koaktiboki eta orokorrean kontra prestazio zuzenik gabe eskatzen dizkion diru zenbatekoak dira. Beraz, zergek bi ezaugarri nagusi dituzte:

- Derrigorrezkotasuna: zergak unilateralki mugatuta eta zerga arauen bidez babestuta daude. Ordainketaren derrigorrezkotasunaren helburua zergadunak, bere ahalmen ekonomikoaren arabera, Estatuaren gastuak ordaintzen laguntzea da. Honek zergapekoaren eta Administrazioaren arteko harreman bat sortzen du, lehenak zergak ordaintzeko obligazioa eta bigarrenak zerga horien ordainketa exijitzeko obligazioa duelarik. Betebehar hori ez betetzeak zigorrak dakartza, larritasun mailaren arabera, ekonomikoak edo penalak izan daitezkeenak.

- Kontra prestazio zuzenik ez izatea: zergak gastu publikoei aurre egiteko erabiltzen dira, baina, zerga ordainketa ez da zergei esker jasotako mozkinen araberakoa. Hala ere, esan bezala, zeharkako onura ematen dute, ongizate-estatu mantentzeko balio baitute: pentsioak, osasungintza, hezkuntza, azpiegiturak... Beraz, gizartearen eta herrialdearen garapenean eta hobekuntzan laguntzen duten oinarrizko elementuak dira.

Bestalde, munduan existitzen diren zerga ezberdinak hainbat irizpideren arabera sailka ditzakegu: inguruabar pertsonala kontuan hartzen duten ala ez (subjektiboak, objektiboak), ordainketen maiztasunaren arabera (periodikoak, une batekoak), oinarriaren arabera (zuzenak, zeharkakoak, gizarte kotizazioak), oinarriari aplikatutako tasen arabera (progresiboak, proportzionalak, erregresiboak)... Jarraian, azken bi sailkapenetako bakoitzak zertan datzan azalduko dugu, baita hauen barruan aurki ditzakegun zerga mota ezberdinak aipatu ere.

OINARRIAREN ARABERAKO ZERGA MOTAK:

Sailkapen honek egite zergagarrian jartzen du arreta, hau da, zerga-betebeharra sortzen edo eragiten duen egoeran zein jardueran.

- Zerga zuzenak: Pertsona fisiko zein juridikoen ordaintzeko ahalmenaren sorrera edo adierazpen zuzena zergatzen dute, hau da, errenta lortzea edota aberastasuna izatea. Zergadunak norbanakoak (fisikoak zein juridikoak) diren heinean, erraza da errenta edo ondare mailaren araberako tarifa diferentzialak ezartzea edota zergadun horietako batzuk zergak ordaintzetik salbuestea.

Diru gehien biltzen duten zerga zuzenak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (zergadunak ekitaldi fiskalean lortutako lan eta kapital errenta guztien gainekoa) eta Sozietateen gaineko Zerga (enpresak ekitaldi fiskalean lortutako irabazi garbien gainekoa) dira. Aipatutakoek baino diru gutxiago biltzen badute ere, Ondarearen gaineko Zerga eta Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zerga ere garrantzitsuenen artean kokatzen dira.

- Zeharkako zergak: Zergak ondasun eta zerbitzuei aplikatzen zaizkien heinean, gizabanakoen ordaintzeko ahalmenaren zeharkako adierazpena zergatzen dute, hau da, errentaren erabilera. Beraz, egintza jakin batzuk burutzen dituzten zergadun guztiek zeharkako zerga hauek ordaindu behar dituzte, haien ordaintzeko gaitasuna edozein dela ere.

Diru gehien biltzen duten zeharkako zergak Balio Erantsiaren gaineko Zerga (azken kontsumorako ondasun eta zerbitzuetan egindako gastuaren gainekoa), Zerga Bereziak (tabakoa, alkohola, erregaia... bezalako ondasun eta zerbitzu jakin batzuen kontsumoaren gainekoa) eta Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga (ondasunen zirkulazioaren, eskubideen eta diruaren edo errentaren gastuaren gainekoa) dira.

- Gizarte kotizazioak: Gizarte kotizazioak aztertu berri ditugun zerga zuzenen eta zeharkako zergen erdibidean kokatzen dira eta kontra prestazioa duten zerga bakarrak dira. Kasu honetan, Gizarte Segurantzarengandik jasotako prestazioak honi ordaindutakoaren arabera dira, hau da, subjektuak (enpresariak, langileak, autonomoak zein langabeak) ez badu gizarte kotizaziorik ordaintzen, ez du aipatutako prestazioak jasotzeko eskubiderik sortzen. Halaber, kotizazioak ordaintzeak ez du esan nahi herritarrek prestazio jakin bat erreklamatzeko eskubidea duenik, hau momentuan indarrean dauden legeen arabera baita.

Osatu dugun definizio honetan Gizarte Segurantzari ordaindutako kotizazioak bakarrik aipatu baditugu ere, gizarte-aseguru gisa mutualitateei eta gizarte-aurreikuspeneko erakundeei ordaindutako kuotak ere gizarte kotizaziotzat jotzen dira. Aipatzekoa da ongizate-estatua gainbeheran dagoenetik azken hauek geroz eta ohikoagoak direla herritarren artean, beharbada, hedatuen dagoena pentsio plan pribatu osagarriek ekarpenak egitea izanik.

TASA - OINARRIA ERLAZIOAREN ARABERAKO ZERGA MOTAK:

Sailkapen honek subjektu pasiboaren gaitasun ekonomikoaren eta ordaindu beharreko tasaren arteko erlazioan edo, bestera esanda, zergen gaitasun birbanatzailean jartzen du arreta.

- Zerga progresiboak: errenta edo aberastasun maila handitzean zerga gisa ordaindu beharreko errentaren ehunekoa handitzen dutenak dira. Hau da, zerga progresiboa izateko, ez da nahikoa errenta handitzean zerga ordainketa handitzea, zergen gehikuntza errentaren gehikuntza baino proportzionalki handiagoa izan behar da.

- Zerga proportzionalak: errenta edo aberastasun maila handitzean zerga gisa ordaindu beharreko errentaren ehunekoa konstante mantentzen dutenak dira.

- Zerga erregresiboak: errenta edo aberastasun maila handitzean zerga gisa ordaindu beharreko errentaren ehunekoa murrizten dutenak dira. Hau da, muturreko adibide bat ipintzearen, pobrezia egoeran dagoen pertsona batek ordaindu beharrekoa, aberats batek ordaindu beharrekoa baino proportzionalki handiagoa denean zergak erregresiboak dira.

2.3.3.- ZERGA POLITIKA ETA EKITATEA

Bildutako diruaren bidez Estatuak eskaintzen dituen laguntza ezberdinek merkatuaren hutsuneak konpontzen laguntzen dute; baina, aztertu berri ditugun zerga mota ezberdinak ikusirik, diru-sarrera horiek lortzeko moduak ere ondorio ekonomiko eta sozial garrantzitsuak izan ditzakeela baieztatu dezakegu.

Horregatik, gobernuek zerga politika diseinatzen dutenean, hau da, diru-sarrerak lortzeko planak egiten dituztenean, iraunkortasuna, progresibotasuna, ekitatea eta eraginkortasuna bezalako printzipioak errespetatu ohi dituzte.

Zerga ekitatiboek zergadunen arteko zerga-zamaren banaketa justua izatea dute helburu. Beraz, ikuspuntu ekonomikotik, berdinak direnek zerga berdinak ordaindu behar dituzte (ekitate horizontala) eta ezberdinak direnek, aldiz, zerga ezberdinak ordaindu behar dituzte (ekitate bertikala). Honi esker, gehiago dutenek gehiago ordaintzen dute eta ondorioz, zergen funtzio eta helburu birbanakorra betetzen da.

Hori horrela, aurreko puntuan aipatutako zerga motei dagokienean, gehienetan, zeharkako zergak erregresiboak eta zerga zuzenak progresiboak izaten dira.

2.3.4.- EGITURA FISKALAREN HUTSUNEAK

Aurreikusitako diru-sarrerak eta lortutako diru-sarrerak ez datoz beti bat, subjektu pasiboek (zergaren eragin ekonomikoa edo, berdina dena, zerga-zama jasaten duten agenteek), zenbaitetan, ez baitituzte haien betebeharrak betetzen. Honi zerga-iruzurra deritzo.

Zerga-iruzurra edo iruzur fiskala beraz, Estatuari zerga ekarpena egitera behartuta dauden pertsona fisiko zein juridikoek, etekin propio handiagoa lortzea helburu, dagozkien zergak nahita ez ordaintzean datza. Administrazioak iruzur hauek zigortzen ditu.

Estuari edo Ogasun Publikoari ondare kalte hau modu ezberdinetan eragin ahal zaio: errealitatea desitxuratuz, fakturak faltsutuz, beste pertsona fisiko zein juridiko baten identitatea baliatuta etekinak ezkutatzuz edo pertsona gehiagoren artean banatuz, subjektuari ez dagozkion onura fiskalak zein zerga itzulketak jasoz... eta abar luze bat.

Hala ere, bi dira zerga ordainketa ekiditeko edo behar baino zerga gutxiago ordaintzeko baliatu ohi diren ekintzak: ihesa (*evasión*) eta saihestea (*elusión*). Lehenak iruzurra baliatzen du zerga betebeharrak ez betetzeko, hau da, legea urratzean datza; bigarrenak, aldiz, legea edo, hobe esanda, legearen hutsuneak baliatzen ditu era "legal" batean ordainketa hori saihesteko.

Amaitzeko, ezin dugu paradisu fiskalek alor honetan duten pisua aipatu gabe utzi, norbanako zein enpresa askok eta askok zergapen maila oso baxua duten herrialde hauetara eramaten baitute beren ondasuna.

2.3.5.- EAE-KO DIRU-SARRERAK

Ondorengo paragrafoetan, orain arte aipatutako guztia EAE-ko errealitatera ekarriko dugu. Horretarako, hurrengo orrian atxikitako taula oinarri, Foru Aldundiek, 2021 urtean, itundutako zergengatik jasotako diru-bilketa aztertuko dugu.

2021 urtean, EAE-ko hiru Foru Aldundiek, orotara, 15.963.209.000€ bildu zituzten. Aipatzekoa da Foru Aldundi bakoitzari dagokion bilketaren portzentajea lurralde historiko horretako populazioarekiko nahiko proportzionala dela; beraz, biztanle kopuruarekiko erlazio hori kontuan izanik, bai herritarren gaitasun ekonomikoa bai ekonomiaren pisua hiru lurraldeetan nahiko antzekoa dela esan dezakegu.

Taula 2: EAE-ko diru-sarrerak Foru Aldundiaren arabera

Iturria: norberak egina

Guztizkoa	B.F.A.	G.F.A.	A.F.A.
%100=15.963.209.000€	%50,97=8.136.447.627€	%33,34=5.322.133.881€	%15,58=2.487.067.962€

Behin irakurketa orokor hori eginda, orain zenbateko hori ze tributuk osatzen duten aztertuko dugu, baita horietako bakoitzak ekarpena ze neurritan egiten duen ere. Azterketa honen helburu nagusia zera da: autonomia erkidegoko diru-bilketa justua edo injustua den ezagutzea, hau da, ea bilketa horrek zergen helburu birbanakorra betetzen duen ezagutzea.

Horretarako, hasteko, tributu moten arteko bereizketa egingo dugu. Pasa den urteko EAeko diru-sarreraren desglosea behean jasotakoa izan zen. Zuzenen eta zeharkakoen arteko ezberdintasuna txikia bada ere, errenta edo aberastasuna bera baino, horien erabilera izan zen zergatuena. Bestalde, argi dago tasak eta bestelako diru-sarrerak hirugarren plano batean geratzen direla.

Taula 3: EAE-ko diru-sarrerak tributu motaren arabera

Iturria: norberak egina

Guztizkoa	Zerga zuzenak	Zeharkako zergak	Tasak eta bestelakoak
%100=15.963.209.000€	%48,46=7.735.340.000€	%50,97=8.136.336.000€	%0,57=91.533.000€

Dena den, esan bezala, zerga zuzenen eta zeharkako zergen arteko aldea ez da bereziki esanguratsua. Ordea, bi multzo horiek osatzen dituzten zergei erreparatuz gero, bilketaren gehiengoa bi zergak osatzen dutela ikus dezakegu argi eta garbi, PFEZ-ak eta BEZ-ak, hain zuzen ere, batak zein besteak 6.000 milioi euro baino gehiago bildu zituelarik. Hori horrela, zuzeneko zergen kasuan, langileen soldata enpresen etekina baino askoz gehiago zergatzen dela baieztatu dezakegu; eta, zeharkako zergen kasuan, kontsumoa ondare eskualdaketa baino gehiago.

Horregatik guztiatik, Euskal Autonomia Erkidegoan zerga presioaren gehiengoa soldatapeko herritarrek jasaten dutela ondoriozta dezakegu. Hala ere, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga progresiboa dela esan beharra dago eta hortaz, errenta altuagoa dutenek diru-sarrera gutxiago dituztenek baino proportzionalki gehiago ordaintzen dutela. Kontrara, bilketaren beste erdiari dagokionean, hau da, Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagokionean, hau herritar guztiek berdin ordaintzen dute, beren diru-sarrerak edozein izanda ere.

Taula 4: Itundutako zergengatik Foru Aldundien diru-bilketa 2021ean

(milika eurotan)	ARABA	BUZUAIA	GIPIZKOA	EAE/CAPV 2021	EAE/CAPV 2020	Ehuneko %	(en milles de euros)
ZUZENEKO ZERGAK							IMPUESTOS DIRECTOS
Persona Fisikoen Errentaren g/Zerga	893.830	2.880.771	1.864.371	5.638.972	5.316.815	6,1	Imppto. s/Renta Personas Físicas
Lan eta Lanbide-jarduere Etekinen Atakip.	17.681	95.552	45.570	158.803	135.357	17,3	Retenc. Rdtos. Trabajo y Activ. Profes.
Higgarriaren Kapital Etekinen Atakip.	8.923	43.200	26.865	78.989	76.526	3,2	Retenc. Rdtos. Capital Mobiliario
Higzararen Kapital Etekinen Atakip.	5.478	34.522	38.551	78.552	49.658	58,2	Retenc. Rdtos. Capital Inmobiliario
Ondare Irabazien Atakip.	959	29.993	3.172	34.124	7.422	359,8	Retenc. Ganancias Patrimoniales
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/Z Ber.	10.632	58.898	58.898	137.333	111.120	23,6	Gravamen Esp. s/Premios Del. Loterías
Zatikako Ordainketak	(5.464)	(26.421)	19.506	(12.379)	(46.673)	73,5	Pagos Fracc. Profes. y Empres.
Hondar-kuota Garbira	932.039	3.125.421	2.056.934	6.114.393	5.650.225	8,2	Cuota Diferencial Nieta
PFEZ Guztira	17.681	95.552	45.570	158.803	135.357	17,3	Imppto. s/Sociedades
Sozietateen g/Zerga	8.923	43.200	26.865	78.989	76.526	3,2	Retenc. Rdtos. Capital Mobiliario
Higgarriaren Kapital Etekinen Atakip.	5.478	34.522	38.551	78.552	49.658	58,2	Retenc. Rdtos. Capital Inmobiliario
Ondare Irabazien Atakip.	143.656	462.133	233.019	838.808	781.008	7,4	Retenc. Ganancias Patrimoniales
Loteria eta Apostu Jakin Batzuen g/Z Ber.	175.738	635.408	344.005	1.155.151	1.042.548	10,8	Gravamen Esp. s/Premios Del. Loterías
Hondar-kuota Garbira	10.204	37.276	14.732	62.212	50.788	22,5	Cuota Diferencial Nieta
Sozietateen Zerga Guztira	20.200	89.849	69.895	179.944	122.169	47,3	Total I. Sociedades
Egoitzadunak Ez Dirinoren Errentaren g/Zerga	19.481	70.818	171.456	171.456	177.197	(3,2)	Imppto. s/Renta No Residentes
Oinordekotasunen eta Dohaintzen g/Zerga	3.745	14.759	9.005	27.509	27.629	(0,4)	Imppto. s/Sucesiones y Donaciones
Ondare/Aberastasun eta Fortuna Handien g.Z	4.002	12.408	8.263	24.673	29.756	(17,1)	Ls./Patrimonio/Riqueza y Grandes Fortuna
Kreditu Erakundeetako gordailuen g/Z							Ls./Depósitos en las Entidades de Crédito
Energia elektrikoaren ekoizpenaren g/Z							Ls./Producción de energía eléctrica
Energia nukleotik. sortzearen hondakinen g/Z							Ls./Prod. residuos generados energía nucle.
Erregal/hondakin erradio. bihagratzearen g/Z							Ls./Almacén. combustible/residuos radiactivos
Iraungitako Zergak							Impuestos Extinguidos
Zuzeneko Zergak Guztira	1.165.410	3.996.277	2.573.653	7.735.340	7.100.312	8,9	Total Impuestos directos
ZEHARKAKO ZERGAK							IMPUESTOS INDIRECTOS
Balio Erantsiaren g/ Zerga	673.461	2.088.060	1.390.517	4.152.038	3.534.767	17,5	Ls Valor Añadido
Berezko Kudeaketa	341.413	1.058.547	704.926	2.104.886	1.628.998	29,2	Gestión Propia
Egokitzapena	1.014.873	3.146.607	2.095.444	6.256.924	5.163.765	21,2	Ajuste
BEZ Guztira	25.537	82.388	74.515	182.440	140.473	29,9	Total IVA
Ondare-eskualdaketan g/Zerga	6.551	19.879	14.515	40.945	35.831	14,3	Imppto. s/Transmisiones Patrimoniales
Egintza Juridiko Dokumentuaren g/Zerga	3.643	9.545	7.091	20.279	16.063	26,2	Imppto. s/Actos Jurídicos Documentados
Zenbait Garraiobideen g/Z.B.							L.E. s/Determinados Medios de Transporte
Fabrikazio Z. Beretzak	742	2.301	1.532	4.575	3.389	35,0	II.EE. Fabricación propia
Berezko Kudeaketa	247.817	768.354	511.676	1.527.847	1.288.568	18,6	Gestión propia
Alkoholo,Eratorriak eta Bitartekoak	49.184	152.494	101.551	303.229	249.992	24,9	Alcohol, Derivadas e Intermedio
Hidrokarburoak	340	1.055	703	2.098	1.680	(9,1)	Hidrocarburos
Tabako-motak	8.296	25.721	17.128	51.145	56.278	(2,4)	Labores tabaco
Garagardoa	(59.609)	(164.818)	(123.077)	(367.504)	(358.892)		Cerveza
Elektrizitatea							Electricidad
Egokitzapenak	246.769	765.107	509.513	1.521.390	1.327.015	14,6	Ajustes
Fabrikazio Zerga Beretzak Guztira	14.997	56.224	33.416	104.638	79.761	31,2	Total II.EE.Fabricación
Ikatzaren g.Z.B.	1.372	3.332	1.887	6.591	6.852	(3,8)	L.E. s/Carbón
Azeguru-primen g/Zerga	148	1.161	(26)	3.207	(104)	25,9	Imppto. s/Primas de Seguros
Joku jardueraren g/Zerga	(12)	(39)		(77)			Imppto. s/Actividades de juego
Berotegi-efektuko gas fluordunen g/Zerga							Ls./Gases fluorados de efecto invernadero
Iraungitako Zergak	1.313.878	4.084.205	2.738.253	8.136.336	6.772.485	20,1	Impuestos extinguidos
Zeharkako Zergak Guztira	3.993	16.912	9.050	29.955	26.777	11,9	Total Impuestos indirectos
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	3.680	38.743	19.156	61.579	49.676	24,0	TASAS Y OTROS INGRESOS
Joku jardueraren g/Zerga							Tasas de juegos
Gainordangorak, Berandutzea eta Zigorrak	7.673	55.654	28.206	91.533	76.453	19,7	Recargos, Demora y Sanciones
Tasak eta Bestelako Sarrerak Guztira	2.486.961	8.136.137	5.340.112	15.963.209	13.989.250	14,4	Total Tasas y Otros Ingresos
ITUNDUTAKO ZERGAK GUZTIRA							TOTAL TRIBUTOS CONCERTADOS

2.3.6.- EAE-KO IRUZUR FISKALA

Foru Aldundiek 2021ean iruzurraren aurka egindako jardueren emaitza 641,5 milioi eurokoa izan zen, horietako 322,1 Bizkaiari, 227,5 Gipuzkoari eta 91,9 Arabari² dagozkiolarik. Kontuan izan behar dugu, zenbateko hori, ordaindu ez diren zergen zenbatekoen gain, beren zerga egoera erregularizatu ez dutenek ordaindu beharreko interes eta zehapenek ere osatzen dutela.

Iruzurrak era guztietako zergadunak eta jarduera-eremuak hartzen ditu barne, baina, guztiek ez dute neurri berean parte hartzen. Hurrengo taulan jaso bezala, emaitzaren herena inguru SZri dagokiola ikus dezakegu. Horri jarraiki, BEZak eta PFEZk lortu zituzten emaitza handienak.

Taula 5: EAE-ko zerga iruzurra osatzen duten zerga nagusiak eta hauen zenbatekoa

Zerga	Emaitza (eurotan eta ehunekotan)
Sozietateen gaineko Zerga (SZ)	217.335.672,9€ = %33,88
Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ)	149.610.071,3€ = %23,32
Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga (PFEZ)	97.801.523,65 = %15,25

Iturria: Foru Aldundiek eskainitako datuetatik abiatuta, norberak eginga

Zenbateko hauek zergok aurreko puntuan azertu ditugun diru-sarreraren gain duten pisuarekin alderatuz gero, iruzurtienak pertsona juridikoak direla baieztatu dezakegu. Gainera, iruzurra identifikatzeko burututako jarduketak kopuruari erreparatu badiogu, BEZaren eta PFEZren kasuan ez bezala, SZren kasuan gutxi batzuek asko iruzurtzen dutela ikus dezakegu.

Hala ere, esan beharra dago, Foru Aldundiek, aurkitutako iruzurraren eta ezarritako zigorraren gehiengoa berreskuratzen dutela; Bizkaiari, esaterako, 2017-2020 bitarte %94a berreskuratzen dute. Gainera, bilakaerari erreparatu gero, oro har, iruzur fiskala geroz eta baxuagoa da. Dena den, jaitsiera hau ezin dugu kontzientziazioarekin lotu, geroz eta kontrol zorrotzago eta eraginkorragoarekin baizik. Azken honen adibide Batuz da, jarduera ekonomikoak garatzen dituzten zergadunentzako kontrol- eta asistentzia-sistema integrala.

Hala ere, oraindik ere, iruzurraren desagertzearen urrun gaude eta honek ondorio larriak ditu. Batetik, iruzurrak Estatuaren sarrerak murrizten ditu eta ondorioz, zerbitzu publikoetan inbertitzeko diru gutxiago du. Hori horrela, zerbitzuen kantitatea eta kalitatea mantendu nahi izanez gero, zergak ordaintzen dituztenek zerga gehiago ordaindu behar dituzte, iruzurtutako zenbatekoa estali behar baitute. Hori gutxi ez eta iruzur fiskalak iruzur fiskal gehiago eragiten du, herritarrek sistemarengan konfiantza galtzen dutenez, beren betebeharrak fiskalak betetzeko uzkur bihurtzen baitira. Horrez gain, zenbait ikerketek aditzera ematen dutenez (CIS), herritar askok ordaintzen dutena baino gutxiago jasotzen dutela uste dute eta, gainera, ez dira Gobernuak bildutako diruarekin egiten duen kudeaketaz fio; Zergak injustuak direla uste dute, baita alderdi politikoaren, enpresen eta aberatsen artean ustelkeria eta iruzur kasuak gehiago direla eta honi aurre egiteko neurri gutxi hartzen direla ere.

² Arabako datuak 2020 urtekoak dira, 2021 urtekoak lortzeko ezintasunaren ondorioz. Hala ere, urtero zenbatekoak nahiko antzekoak direla kontuan izanik, estrapolagarriak iruditu zaizkigu.

2.4.- GASTU PUBLIKOA

2.4.1.- GASTU PUBLIKOA KONTZEPTU GISA

Esan bezala, politika fiskala sarrera eta gastuei buruzko politiken multzoa da, hau da, baliabideen zenbatekoa eta baliabide horien helburua zein den zehazten du. Beraz, Estatuak aberastasuna birbanatzeko, merkatuaren akatsak zuzentzeko, giza eskubideak bermatzeko eta pixkanaka pobrezia desagerrarazteko eta ezberdintasunak murrizteko duen funtsezko tresnetako bat da. Hori horrela, baliatutako zerga eta gastu motaren arabera, politika fiskal mota ezberdinak gauzatu daitezke: progresiboak ezberdintasunak zuzentzen laguntzen du, neutroak ez ditu aldatzen eta erregresiboak larriagotu egiten ditu.

Aurreko puntuetan diru-sarrerak aztertu ditugu eta, orainoan, bildutako diru horren xedean, hau da, gastuan jarriko dugu arreta. Dena den, gastu publikoa diru-sarrera fiskalekin zuzenki lotuta dagoela kontuan izan behar dugu. Izan ere, gastu publikoak aurrekontu publikoa exekutatzean datza eta, horretarako, nahitaez, lehenik eta behin, dirua bildu behar da.


Hori argituta, jarraian, gastuak ere funtzio birbanakorra bete dezakeela ikusiko dugu. Zentzu horretan, gastu sozialak gastu motaren arabera hiru hartzaile edo onuradun ditu:

- Kontribuzio izaerako prestazioak: onuradunak denboraldi jakin batean zehar Gizarte Segurantzian kotizatu dutenak dira. Kotizaziopeko pentsioak, langabeziagatiko prestazioak edo lanerako ezgaitasunagatiko prestazioak honen adibide dira.
- Izaera unibertsaleko prestazioak: biztanleria osoari zuzendutako laguntzak dira, onuradunak hauek eskatzen dituztenak izanik. Honen adibiderik argienak hezkuntza eta osasuna dira.
- Konpentsazio izaerako prestazioak: baliabiderik ez duten edo baliabide gutxi dituzten kolektiboentzako laguntzak dira, hau da, pobrezia mugaren azpitik bizi direnentzako laguntzak. Sektore behartsuenei begirako gizarte laguntza funtzioa betetzen duten heinean, ekitatean gehien eragiten duen gastu mota da. Hauen artean diru-sarrerak bermatzeko errenta, langabezia prestazioa jasotzeko eskubiderik ez dutenentzako berme-soldata, kotizazio gabeko pentsioak, babes ofizialeko etxebizitzak, mendekotasuna duten pertsonentzako gizarte zerbitzuak, eta abar aurki ditzakegu.

2.4.2.- EAE-KO GASTU PUBLIKOA

Lana hasi dugunetik azpimarratu bezala, Administrazioek ongizate amankomuna bilatu behar dute eta gastu publikoak funtzio berezia du horretan. Hori horrela, honen zenbatekoak eta hau zertara bideratzen den edota zertan inbertitzen den ondo erabakitzeak berebiziko garrantzia du. Jarraian, EAE-ko 2022ko aurrekontuak aztertuko ditugu, helburua ea gastuek herritarren beharrak asetzeko eta hauen ongizatea bermatzeko funtzioa betetzen duten ezagutzea izanik.

Grafikoa 5: EAE-ko aurrekontuak, gastuen atala



Iturria: Eusko Jaurlaritza, www.euskadi.eus

2022ko EAE-ko Aurrekontuak 13.107,8 milioi eurokoak dira. Datuen desgloseari erreparatu ezker, begi bistakoa da osasunak eta hezkuntzak aurrekontuon zatirik handiena hartzen dutela, %58 inguru edo, berdina dena, 7.600.000.000€ inguru. Hala ere, bereziki osasungintzaren kasuan, pandemiak agerian utzi du aurrekontuen zati handi bat alor honetara bideratzen bada ere, ez dela nahikoa, konpondu beharreko egiturazko arazoak dituela.

Antzeko zerbait esan dezakegu lana eta enpleguari buruz. Hezkuntza eta osasunaren atzetik, zor publikoarekin batera, diru gehien jasotzen duen departamentua da hau. Ordea, lan kontratuen aldi baterakotasuna oso hedatua dago, langabezia-tasa altua da, langile askoren lan baldintzak kaxkarrak dira... Beraz, prestazioek zenbait behar asetzen dituztela ukazina da, baina, ez dute herritarren ongizatea bere osotasunean bermatzen.

Laburbilduz, Eusko Jaurlaritzaren hitzetan, Aurrekontuen zati handienak, %77ak zehazki, gizarte politikak bermatzea eta hobetzea du helburu, baita trantsizio teknologiko eta digitalean zein energetiko eta klimatikoan aurrera pausuak ematea ere eta, beraz, gastu publikoak dagokion funtzioa betetzen du. Oposizioko hainbat alderdiren ustetan, ordea, lurraldearen aberastasuna kontuan izanik, gastu publikoaren zenbatekoa handiagoa izan zitekeen eta izan beharko litzateke, are gehiago aipatutako zenbatekoek Covid19ak eragindako krisiari zuzenki loturiko hainbat partida barne hartzen dituztela kontuan izanik eta, beraz, salbuespeneko egoera bati baino ez diotela erantzuten kontuan izanik. Era berean, baliabideen esleipena egokiagoa izan zitekeela baieztatzen dute, bereziki, inbertsio publikoari dagokionean.


Argi dagoena gaur egun gastu publikoaren eta inbertsioaren beharra oso handia dela da, baita etorkizunean izaten jarraituko duela ere. Horregatik, beharren identifikazio egoki bat egitea, lehenetsunak ezartzea eta egiturazko arazoak konpontzea ezinbestekoa da, honek bakarrik ahalbidetuko baitu gastuaren erabilera eraginkorragoa.

3.- ONGIZATE-ESTATUA, FISKALITATEA ETA HEZKUNTZA

Orain arte ongizate-estatuaren nondik norako ezberdinak aztertu ditugu, baita ikuspegi ekonomikotik hau sostengatzeko zer behar den ere. Hurrengo puntuetan, aldiz, sostengarritasun hori bermatu dezakeen faktore garrantzitsu batean jarriko dugu arreta, hezkuntzan³.

Ongizate-estatu, fiskalitatea eta hezkuntza kontzeptuen arteko harremana ukaezina da. Izan ere, aurreko puntuetan hainbatetan aipatu bezala, ongizate-estatu mantentzeko fiskalitatea funtsezkoa da, egun, hau finantzatzeko baliabideak lortzeko tresna nagusia tributuak baitira. Eta, aldi berean, ongizate-estatu eredu guztietan, honen ardatz nagusietako bat hezkuntza da, hau da, ez dugu hezkuntza sistema publikorik gabeko ongizate-estaturik ulertzen. Beraz, logikoa dirudi hezkuntza ere ongizate-estatu sostengatzen duen tributazioa bultzatzeko erabiltzea.

Irudia 3: Ongizate-estatu – Fiskalitatea – Hezkuntza elkar eragina



Iturria: norberak egin

3.1.- BALOREAK ETA HEZKUNTZA

Hezkuntzaren helburua, ezagutza transmititzeaz gain, gizartean oinarrizkoak diren baloreak transmititzea da. Hori horrela, matematika, geografia edo literaturaz gain, ikastetxeetan elkarbizitza, berdintasuna edo bakea bezalako baloreak lantzen dira.

Kasu honetan, erantzukizuna eta konpromisoa edo, hobe esanda, gizartearekiko erantzukizuna eta konpromisoa dira transmititzea lortu beharreko baloreak, ongizate-estatuak eta fiskalitateak, finean, herritarron ongizatea baitute helburu.

Horrez gain, demokraziari lotutako baloreen transmisioa ere garrantzitsua da. Izan ere, aurreko atalean, ongizate-estatu eta sistema demokratikoa estuki loturik daudela ikusi dugu; herrialde demokratikoak izan ziren ongizate-estatu garatu zutenak eta, egun, sistema demokratiko garatuenak dituzten herrialdeak dira ongizate-estatu indartsuena dutenak.

³ Atal honetan hezkuntza formalaz arituko gara, baina, ezin dugu aipatu gabe utzi baloreen transmisioan hezkuntza ez formalak betetzen duen funtzioa.

Baloreen transmisioa ondorengo hiru ardatzak jorratuz lortzen da:

Gaiaren inguruko ezagutza: edozein gairen inguruko ezagutza maila altua dugunean, gai horren inguruko iritzi bat sortzea eta horrekiko jarrera bat hartzea errazagoa zaigu.

Hori horrela, ordaintzen ditugun zergak nora doazen jakiteak, erakundeek diru hori zertan gastatzen edo inbertitzen duten ezagutzeak, herritarren beharrak zeintzuk diren identifikatzeko gai izateak eta bestelako arrazoiek, zerga horien beharra azaleratzen dute eta, beraz, zergak ez ordaintzearen aldeko mezuak baliogabetzen dituzte.

Izan ere, “Gobernuak dirua kentzen digu”, “Gure kontura aberats egiten ari dira” edo “Dirua herritarren poltsikoan dago hoberen” bezalakoek gobernuak herritarrokin zerikusirik ez duten agenteak direla ematen dute aditzera. Baina dirua zertan gastatzen duten ezagutzen badugu, ados egon gaitezke edo ez, baina zergen bidez hezkuntza, osasungintza, errepideak eta bestelako zerbitzu eta azpiegiturak finantzatzen direla argi izango dugu, baita hauek dohainik edo kostua baino merkeago jaso nahi baditugu zergak ordaintzea ezinbestekoa dela ere bai.

Balorearen zehaztapena eta une historikoarekiko egokitzapena: gizarte orok bere baloreak ditu eta, balore hauek, historian zehar, aldatuz doaz. Hau da, urteek aurrera egin ahala, gizarte gisa ondo eta txarto ikusia dagoena aldatuz doa.

Pare bat adibide ipintzearen. Esklabotza, duela bi mende, erabat onartua zegoen, baina, gaur egun, pertsona guztiok berdina garelako eta guztiontzako gutxieneko giza eskubide batzuk existitu behar direla erabat barneratuta dugu. Era berean, gaur egun, genero ezberdinen arteko parekotasuna guztiz onartua dago, baina, ezin dugu ahaztu, duela 60 urte, emakume batek kontu korrante bat zabaltzeko bere senarraren baimena behar zuela. Dena den, esan beharra dago, baloreak errotik aldatzeko denbora asko behar dela eta bilakaera hori ez dela lineala. Horregatik, ustez barneratuta ditugun baloreek, zenbaitetan, praktikan, ez dute itzulpenik.

Zergei dagokienean, egun, zergak ez ordaintzea, behar baino zerga gutxiago ordaintzeko zirrikitu legalak bilatzea eta antzeko jokabideak ez dugu ondo ikusiak daudenik esango, baina, txarto ikusiak ere ez daude. Beraz, aldatu beharreko pentsaera bat da.

Balorearen lanketa: baloreen lanketa modu ezberdinetan egin daiteke, modu zuzenean edo transbertsalean, era puntualean edo jarraikorrean...

Zentzu horretan, batetik, balorea bere horretan lantzen duten unitate espezifikoak erabili daitezke. Hauen bidez, gaia modu intentsiboan lantzen da eta honi lotutako eztabaida, lanketa eta ariketa propioak burutzen dira. Bestetik, garrantzitsua da gaia era transbertsalean ere lantzea, beste irakasgai batzuetan zeharkako erreferentzia eginez edo jolastu bitartean gaiari lotutako egoerak planteatuz. Era berean, hori guztia modu eraginkorrean garatzea ezinbestekoa da, horretarako, tresna berritzaileak baliatu daitezkeelarik.

3.2.- EAE-KO ESPERIENTZIA

Zerga iruzurraren aurka borrokatzeko Eusko Jaurlaritzak eta hiru Foru Aldundiek hartutako neurri ezberdinen artean, herritarrek zerga arloan duten kontzientzia kolektiboa eta iruzurraren aurreko zero tolerantzia gaztetatik indartzea eta sustatzea aurki ditzakegu.

Zerga heziketaren aldeko apustua egin izanaren isla, EAE-n 2017tik gai hau jorratzen duen hezkuntza programa edo unitate didaktiko bat martxan egotea da. Honek Ekonomia eta Zergak du izena. Jarraian, programaren nondik norakoak aztertuko ditugu: hartzailleak, helburuak, edukia, metodologia... horretarako, *Zergak Txostenean* jasotako informazioa baliatuz, eta, ostean, hau hobetzera bidean, ekarpen batzuk egingo ditugu.


3.2.1.- EKONOMIA ETA ZERGAK PROGRAMA

Programaren hartzailleak

Ekonomia eta Zergak programa DBH 4. mailako, Batxilergoko 1. eta 2. mailetako eta Lanbide Heziketako ikasleei zuzenduta dago. Programaren sortzaileen hitzetan, “gaurko ikasleak biharko herritarrak izango dira eta, beraz, oso garrantzitsua da hauek kontzientzia fiskalean heztea”.

Parte hartzeari dagokionean, 2021eko ekainaren 21era arte, 252 ikastetxek parte hartu zuten programan; horietako 29 Araban, 131 Bizkaian eta 92 Gipuzkoan egonik.

Grafikoa 6: Programaren inplementazioa mailaren arabera



Hiru lurralde historikoen batez bestekoa kontuan izanik, ezkerreko grafikoan ikus dezakegunez, parte hartzailleetako gehiengoak programa DBHko 4. mailan landu du. Kontrara, oso gutxi dira gaia batxilergoko bigarren mailan lantzea erabaki duten ikastetxeak, arrazoi nagusia ikasturte horretan unibertsitatera sartzeko proba landu ohi dela izanik.

Iturria: Zergak txostena 2021/06/21

Programaren helburuak

Ekonomia eta Zergak programaren helburu nagusia, izenak berak adierazi bezala, ikasleei ekonomiari eta zergei buruzko oinarritzko ezagutza eta jakintza transmititzea da. Baina, esan bezala, programa hau hezkuntza etiko- eta zibiko-tributarioan oinarritutako programa bat da. Hori dela eta, gaiaren inguruko ezagutzaren transmisioa ez ezik, honen bidez, beste bi helburu erdietsi nahi ditu: gazteenengan kontzientzia fiskala piztea eta iruzur fiskala prebenitzea, hain zuzen ere. Horrez gain, helburu zentrala ez bada ere, ikasitakoa etxekoekin partekatzearen garrantzia eta baliagarritasuna azpimarratu beharra dago.

Programaren edukia

Orain arte aipatutako gaitasun, ezagutza eta balioak indartzeko, Ekonomia eta Zergak programak ondorengo hiru ideietan laburbildu daitekeen edukia jorratzen du:

- Euskal zerga sistemaren oinarritzko ezaugarriak eta zerga garrantzitsuenen egitura.
- Erakunde publikoak eta aurrekontuaren erabilera eta banaketa, hau da, administrazio ezberdinek zergen bidez jasotako diruarekin zer zerbitzu publiko eskaintzen dituzten.
- Iruzur fiskalak zerbitzu publikoetan duen eragina eta horrek dakartzan ondorio negatiboak.

Programaren metodologia

Ekonomia eta Zergak programaren metodologia ondorengo ataletan banatzen dela esan dezakegu: teoria, praktika eta bisita. Dena den, aurrerago azalduko ditugun saio kopuruen arabera, atal batek edo besteak pisu gehiago edo gutxiago hartuko du.

Edukia bere horretan lantzeko, ikasleak informazio iturri ezberdinak arakatzera, informazioa jasotzera, hau lantzera, bereganatzera eta gainontzeko klase kideen aurrean aurkeztera bultzatzen ditu. Horretarako, talde txikietan eta elkarlanean lan egitea proposatzen du.

Teorikoki landutako eduki hori era praktikoagoan lantzeko, aldiz, berrikuntza maila handiko material didaktikoak baliatzen ditu, hala nola, joko dinamika intuitiboko plataforma eta arazo sozioekonomiko ezberdinen aurrean ikasleak erabakiak hartzera behartzen dituen simulagailua.

Zentzu horretan, aipatzekoa da ikasketa digitala bultzatzeko egindako apustua. Digitalizazioaren helburua fiskalitateari buruzko materia ludikoagoa eta dinamikoagoa bihurtzea da; honen bidez, ikasleei ikasketa interaktibo, esanguratsu eta esperientziala emateko. Orain arte, inplementatutako gamifikazio (emaitza hobek lortzea helburu, jokoaren mekanikan oinarritutako ikasteko teknika) eta simulazio tekniken erabilerari esker, prestakuntza saioetan ikasleen parte hartzea sustatzea lortu da, horrela, kontzeptu fiskalak erraz barneratzea lortuz.

Amaitzeko, tokiko Foru Aldundiaren bulegoetara bisita egin ohi da. Bertan, honek biltzen dituen zergak, eskaintzen dituen zerbitzuak, iruzurrak bere jardunean duen eragina... lantzen dira.

Aipatutako guztiaren dinamizazioa ikastetxeko irakasleen esku geratzen da; oro har, ekonomia irakasleen esku. Izan ere, programaren edukia lantzeko ikastetxeek hautatutako ikasgaiari erreparatu ezker, orain arte, gehiengoak, %82,14ak, Ekonomia ikasgaia hautatu du. Hala ere, zeregin horretan trebatzeko eta formakuntza espezifiko eskaintzeko, programako kide bat saio horiek dinamizatuko dituen irakaslearekin biltzen da eta bai edukiari bai funtzionamenduari buruzko nondik norako guztiak azaltzen dizkio.

Bestalde, aipatutako guztia lantzeko, programak saio kopuru ezberdinak izan ditzake, hala, ikastetxe zein irakasleen interes eta beharretara ahalik eta gehien egokitu ahal izateko. Gaur egun, ondorengo hiru aukera hauek daude eskuragarri:


- Ibilbide murriztua edo 4 saioko ibilbidea: lehen moduluak (ikasleei aurkezpen multimedia) eta bigarren moduluak (jolas dinamikak dituen online plataforma) osatzen dute. Programan parte hartu duten ikastetxeen %40,08ak ibilbide hau hautatu du.

- Ibilbide osoa edo 7 saioko ibilbidea: ibilbide murriztuak eskaintzen duenaz gain, hirugarren modulu bat eskaintzen du (simulagailu sozioekonomikoa). Programako parte hartzaileen %35,32ak ibilbide honen alde egin du.

- Ibilbide hedatua edo 10 saioko ibilbidea: ibilbide osoaren berdina da, baina, kasu honetan, hori guztia lantzeko 3 saio gehiago ditu, hau da, gaiari sakontasunez heltzeko aukera gehiago ematen ditu. Ikastetxeen %21,03ak ibilbide hedatua egin du.

- Ibilbide mistoa: ikasleen mailaren arabera ibilbide bat baino gehiago aukeratu nahi duten ikastetxeentzako diseinatuta dago. Orain arte, ikastetxeen %3,57ak eskatu du.

Grafikoak 7 eta 8: Programaren inplementaziorako baliatutako saio kopurua eta ikasgaia



Iturria: Zergak txostena 2021/06/21

Programaren emaitzak

Programaren emaitzak bi ikuspegitatik aztertu dira: batetik, ikasleen ezagutza mailan emandako gehikuntzan oinarrituta eta, bestetik, irakasleek egindako balorazioan oinarrituta.

Ikasleei dagokienean, programako edukia lantzen hasi aurretik eta programa bera bukatu ostean, gaiaren inguruan zenbat dakiten neurtzen duen galdera sorta bat erantzun behar dute. Bi galdera sorta horien emaitzen arteko konparaketaren bidez, ezagutza mailan emandako aldaketa ezagutu dezakegu. Hori horrela, orain arteko emaitzak ondorengoak izan dira.

Taula 6: Ikasleen ezagutza mailan emandako aldaketa edo ikasleentzako probetxu maila

	Aurre ebaluaketa	Ebaluaketa
Sektore publikoa	%50,96	%74,83
Tributuak	%52,57	%75,85
Iruzur fiskala	%62,22	%78,83

Iturria: Zergak txostena 2021/06/21eko datuak baliatuta, norberak egina

Bestetik, esan bezala, irakasleek programa baloratu dezakete, horretarako, beheko taulan jasotako gogobetetzearen inguruko galdera sorta erantzunez. Ikus dezakegunez, oro har, balorazioak positiboak dira, batez bestekoa, 5 punturen gainean, 4,247koa izanik.

Taula 7: Irakasleen gogobetetze maila

1. Plataformaren erabileraren erraztasuna	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,24
2. Uhartearen erabilerari esker ikasleek iruzur fiskalaren ondorio negatiboak ulertu dituztela uste dut (4 saioko ibilibidea aukeratu baduzu ez erantzun)	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 3,63
3. Edukien egokitzapena ikasleen maila kontuan hartuta	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 3,95
4. Edukien eta horiek lantzeko aukeratutako irakasgaiaren arteko harremana	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,42
5. Gertakari eta zalantzen ebazpenean emandako erantzunen azkartasuna	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,52
6. Programaren erabilgarritasuna	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,18
7. Programa honetan erabilitako metodologia egokia ikusten duzu? (4 saioko ibilibidea aukeratu baduzu ez erantzun)	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,25
8. Errepikatuko zenuke?	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,60
9. Programak zure helburuak bete dituela uste duzu?	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,26
10. Programari esker Sektore Publikoarekin, Zergekin eta Iruzur fiskalarekin zerikusia duten ikasleen ezagutzak handitu direla uste dut.	★ ★ ★ ★ ★	Puntuazioa: 4,42

Iturria: Zergak txostena 2021/06/21

3.2.2.- HOBKUNTZARAKO PROPOSAMENAK

Ikusi berri dugun bezala, Ekonomia eta Zergak programak irakasleengandik jasotako balorazio globala nahiko positiboa da eta, gainera, argi dago ikasleek gai honen inguruan duten ezagutza maila handitzen duela. Hala ere, programaren sortzaileek oraindik ere hau hastapenetan dagoela eta hobekuntzarako tarte handia duela aitortzen dute. Horregatik, ondorengo paragrafoetan, aztertu ditugun ezaugarrietatik eta balorazioetatik abiatuta, hobekuntza horretan ekarpena egiteko asmoa duten proposamenak mahai gaineratuko ditugu.

Hasteko, programa adin tarte jakin bati zuzenduta dagoela ikusi dugu, 15-18 urte bitartekoei gutxi gorabehera. Gure ustez, adin tarte hau zabalagoa izan beharko litzateke eta, beraz, gaia gazteagotatik lantzen hasi. Zentzu horretan, programa lantzen hasteko adin optimoa 9-10 urte direla esango genuke (LH 3. edo 4. maila), behin ikasleek idazten, irakurtzen eta oinarrizko matematikak ebazten ikasi dutenean. Adin tarte helduagoi ere zabaltzea ez dugu txarto ikusten, baina, pertsona hauengan eragitea zailagoa dela uste dugu, ordurako pentsaera bat garatuta izan ohi baitugu, horren alde argudiatzeko gaitasun gehiago edo gutxiagorekin bada ere.

Ildo beretik jarraituz, irakasleen balorazioei erreparatu ezker, “edukien egokitzapena ikasleen maila kontuan hartuta” balorazio baxuenetakoa jasotzen duen alderdia dela ikus dezakegu. Argi dago, beraz, gaur egun, adin ezberdintasuna 3-4 urtekoa izanik, lanketetan berezitasunak ezartzeko beharra baldin badago, adin tarte are gehiago zabaltzea ezker, behar hau areagotu besterik ez dela egingo. Horregatik, bai edukiari bai metodologiari bai tresnei dagokienean, ondorengo egokitzapenak proposatzen ditugu.

Batetik, umeei, hau da, egun programa jasotzen dutenak baino gazteagoak direnei, beharbada, gaia era transbertsanean baino ez litzaieke planteatu beharko. Honen adibide, matematiketan zatiketak zein hiruko erregela irakatsi bitarte, amamaren urtebetetzerako oparia guraso eta seme-alaben artean zenbateko berdinetan ordaintzea bidezkoa iruditzen zaien edo bakoitzak duen diru kopuruaren arabera ordaindu beharko litzatekeen galdetzea da. Era berean, zergapenaren gaiari loturik ez landu arren, besteen arazoez enpatia eta sentsibilizazioa zein proiektuak aurrera eramateko guztion inplikazioaren beharra txikitatik lantzeak garrantzia berezia du, aurrerago, norbanakoen baldintza ekonomikoaren arabera zergapenaren eta laguntzen logika ulertzeko eta bat egiteko oso lagungarria izango baita.

Tresnei dagokienean, kasu honetan, beste ikasgaietan gaiari loturiko egoerak eta galderak planteatzea, bai irakaslea bera bai ikasgelan baliatzen diren ipuin zein pelikuletako protagonistak eredugarri izatea eta, behar izanez gero, umeei balore hauen definizioa azaltzea dira adituek gomendatzen dituzten gako nagusiak.

Bestetik, gaur egun programa jasotzen duten gazteen kasuan, formaturik egokiena formatu mistoa dela uste dugu, hau da, gaur egun programak baliatzen duen eredu teoriko eta praktikoa. Dena den, arestian aipatutako gabeziak kontuan izanik, alor teorikoak, bereziki, sakontasun maila ezberdinak izan beharko lituzkeela uste dugu. Izan ere, Ekonomia ikasgaia DBH 4. mailan eskaintzen da lehenengoz eta, zenbaitetan, hautazko ikasgaia da. Beraz, lehenengo urteetan, ongizate-estatua, diru-sarrerak, gastu publikoa eta bestelako kontzeptuak orokortasunetik landu beharko liratekeela uste dugu; ziklo honen azken urteetan, aldiz, zerga, zerbitzu publiko eta iruzur mota ezberdinetan zein bestelako zehaztasunetan sakonduz.

Alor praktikoa dagokionean, Ekonomia eta Zergak programak erabiltzen dituen jolasak eta simulagailua egokiak iruditzen zaizkigu. Tresnok, irakasleen partetik, horren nota baxua eskuratu izanaren arrazoi nagusiak, ikasleen "seriotasun eza" eta balorazioerako irizpide gisa emaitzei erreparatzea direla esango genuke. Izan ere, horrelako tresnek fikziozko errealitatea dute lan eremu gisa eta, beraz, ikasleek hartutako erabakiek ez dute inolako ondoriozko, ez positibo ez negatiborik, honek, zenbait ikasleren kasuan, erabakiak alirizira hartzea eraginez. Programaren egituraketa berri honetan gaia landuko duen beste ziklo bat geratuko litzatekeenez, oinarriko ideiak ulertu badituzte, jolasen emaitzei ez genieke behar baino larritasun gehiago emango.

Azkenik, helduagoen kasuan, hau da, goi mailako Lanbide Heziketako zein unibertsitateko ikasleen kasuan, gradua edozein izanik ere, ez dugu uste edukiak sakontasun edo zehaztapen maila altuagoa izan beharko lukeenik. Izan ere, ezin dugu programaren helburua zein den ahaztu, kontzientzia fiskala piztea, ez zergapenean adituak formatzea.

Ordea, alor praktikoa, ezberdin landuko genuke, ertainetako ikasleekin baino era pertsonalago edo formalagoan, nolabait esatearren. Aurreko fasean, esan bezala, fikziozko errealitatea izango lukete lan eremu gisa, eta, fase honetan, aldiz, benetako errealitatea lehen eskutik bizi beharko

luketela uste dugu. Horretarako, bizipen pertsonalak edota beren jarduna zergekin finantzatzen duten administrazioetara bisita egitea egokiagoak liratekeela uste dugu.

Bestalde, programa ikasle guztiek jaso beharko luketela uste dugu, ikasten ari direna edo zer dela ere. Ekonomia eta Zergak txosteneko datuek jaso bezala, gaur egun, programa Ekonomia ikasgai landu ohi da eta, Lehen Hezkuntzan zein Unibertsitateko gradu askotan ikasgai hau ikasketa programan barneratuta ez egoteaz gain, ertainetako ikastetxe askotan, ikasgai hautazkoa da. Beraz, egokiena, programak eskatzen duen denbora tartea hartu eta egun horietan zehar guztiek programa lantzea izango litzateke; ostean, bakoitzak bere esparrutik eta, ahal den heinean, zeharkako era batean landuko lukeelarik.

Horrez gain, gure iritziz, hezkuntza prozesuaren ziklo jakin batean era puntual batean landu beharrean, gaia prozesu osoan zehar behin eta berriro, modu errepikakorrean, landu beharko litzateke, hainbatetan aipatu bezala, edukia unean une ikasleak duen adinari, ezagutzei eta gaitasunei egokitzuz. Horregatik, kasu honetan, haien artean prozesu oso bat osatzen duten hiru fasez osatutako programa bat proposatzen dugu.

Amaitzeko, aipatu berri dugun guztia modu eraginkorrean egitea ezinbestekoa da, horretarako, ikasleentzako tresna zein bide erakargarrienak erabiliz. Zentzu horretan, irakasleen azalpenak osatu asmoz, noizean behin kanpoko norbait ikastetxera ekartzea ondo legoke. Esaterako, Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta zer den azaldu nahi badugu, ondo legoke hau jasotzen duen norbait ikastetxera hurbilduko balitz bere egoera azaltzera. Era berean, agerikoa da komunikazioa bera eta komunikatzeko bideak aldatzen ari direla. Hori horrela, beste aukera bat, gazteengan eragin handia duten youtuberren bideoak erabiltzea izan liteke, betiere zergak onak direla transmititzeko; honen adibide Ibai Llanos izan daiteke. Kirolariek, abeslariek, influencerrek, politikariek... ere funtzio berdina bete ahalko lukete.

Laburbilduz, gure aburuz, Ekonomia eta Zergak programaren hartzailen adin tartea zabaldu egin beharko litzateke, betiere, ikasleen adinari egokitutako sakontasun maila zainduz eta ziklo bakoitzean gaia lantzeko baliabide ezberdinak erabiliz. Horrez gain, Ekonomiako ikasleak ez ezik, ikasle guztiak hartzaile izan beharko liratekeela uste dugu, gauza bat zein bestea ikasi, guztiok ordaindu behar baititugu zergak. Eta, azkenik, gaia aipatutako zikloetan zehar era jarraikorrean eta, bereziki, eraginkorrean landu beharko litzatekeela uste dugu, horretarako, beharrezkoak liratekeen tresnak sortuz eta baliatuz.

4.- ONDORIOAK

Sarreran esan bezala, oro har, herritarrek badakite ongizate-estatua zer den eta nahiko argi dute horrengandik zer espero edota nahi duten ere. Aitzitik, ez dute honek eskaintzen dituen azpiegitura, zerbitzu eta prestazioen finantzaketan beren aletxoa jartzeko prestutasun handirik, ez dute beren parte hartze eta ekarpena ezinbestekoa dela ulertzen edo ulertu nahi. Lanean zehar, honen atzean bi arrazoi nagusi egon daitezkeela ikusi dugu: gaiarekiko ezjakintasuna eta instituzioen kudeaketarekiko mesfidantza. Ondorioz, argi dago tributazioa balore positibo gisa landu beharra dagoela, funtsezkoa baita gizarteak (eta instituzioek, noski), zergak zein egitura fiskala osatzen duten gainontzeko obligazioak ordaintzearen bidez, ongizate-estatuaren biziraupena ziurtatzeko konpromisoa bere senti eta egin dezan.

Horretarako, gaiaren inguruko ezagutza eta kontzientziazioa behar beharrezkoak direla ikusi dugu. Azken hori, hau da, kontzientziazio konpartitu eta kolektiboa, prozesu luze eta konplexu baten emaitza izango da, baina, aldi berean, gaurdanik has dezakegun prozesu bat da. Hori garatzeko, iritzi sortzaileak diren bide eta bitarteko ugari baliatu daitezke, besteak beste, komunikabideak, familia edota sare sozialak. Dena den, lanaren azken atalean frogatu bezala, tresnarik eraginkorrena eta, beraz, garrantzitsuena hezkuntza da, gazte gaztetatik, etorkizuneko zergadunak balore egokien bueltan hezteko aukera eskaintzen baitu.

Norabide horretan, EAE-n dagoeneko Ekonomia eta Zergak programa martxan dagoela ikusi dugu, baita honek emaitza positiboak dituela ere. Hala ere, zenbait gabezi identifikatu ditugu eta, beraz, programaren sortzaileekin bat eginez, hobekuntzarako margen handia duela eta honetan sakondu beharra dagoela esan dezakegu.

Amaitzeko, lanean zehar bestelako faktoreei zentralitate gutxi eman badiegu ere, argi dago errealitate demografiko berriak, zenbait baliabide naturalen agorpenak, lan-merkatuan gertatzen ari diren aldaketek eta bizi dugun ziurgabetasun ekonomikoak ongizate egiturak birpentsatzera behartzen gaituztela eta, zerga-egitura eraginkor bat ezartzearekin eta bermatzearekin batera, hauei egokitzeko neurriak hartu beharrean gaudela.

Laburbilduz, lan honen bidez, 3 ondorio nagusi atera ditugu:

- 1.- Ongizate-estatua mantentzeko eta ziurtatzeko tributazioa beharrezkoa da.
- 2.- Tributazioa norberaren ekarpen gisa ulertu behar dugu zergadunok, balore positibo gisa.
- 3.- Gaurdanik hasi behar dugu balore horren transmisioa eta, bide horretan, hezkuntzak jokatu beharreko papera funtsezkoa da.

5.- BIBLIOGRAFIA

Agencia Efe. (2022, martxoak 31). *La deuda pública se redujo al 118,4% del PIB en 2021, 1,6 puntos menos.* www.efe.com <https://www.efe.com/efe/espana/economia/la-deuda-publica-se-redujo-al-118-4-del-pib-en-2021-1-6-puntos-menos/10003-4773648>

Arabako Foru Aldundia. (2020). *Arabako Lurralde Historikoko Foru Ogasunaren urteko txosten integratua.* <https://irekia.araba.eus/documents/2908004/2946809/Informe+anual+integrado+2020.pdf/a1a51157-4aac-75c9-6814-51872497ba5f?t=1625048330627>

Arroyo M. & Merino J. (2018, otsailak 28). *El Concierto Económico vasco, en 20 preguntas.* El Correo. <https://www.elcorreo.com/economia/140-anos-concierto-economico/concierto-economico-anos-20180228110900-nt.html>

Bizkaiko Foru Aldundia. (2022, martxoak 14). *2021eko iruzur fiskalaren aurkako borrokaren balantzea: 530.000 jarduketa eta 322 milioi euroko emaitza.* Bizkaia.eus <https://web.bizkaia.eus/eu/web/comunicacion/berriak/-/news/detailView/22478>

Concierto Económico Vasco. Ad Concordiam. <https://conciertoeconomico.org/>

Diccionario Economipedia. <https://economipedia.com/definiciones>

Diccionario Eustat. https://www.eustat.eus/documentos/defconnom_c.html

Diccionario panhispánico del español jurídico. <https://dpej.rae.es>

Educación tributaria. Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia. <https://web.bizkaia.eus/eu/web/educacion-tributaria>

Ekonomia eta Zergak: concienciación sobre el fraude fiscal a través de la gamificación. Gestionet. <https://gestionet.net/ekonomia-eta-zergak/>. (2021, irailak 29).

Esping-Andersen, G. (Ed.). (1993). *Los tres regímenes del Estado de bienestar. Los tres mundos del Estado de Bienestar* (25–141 orr.). Alfons el Magnanim-IVEI. Valencia. <http://polsocytrabiigg.sociales.uba.ar/wp-content/uploads/sites/152/2014/03/Esping-Andersen-Los-tres-mundos-del-Estado-del-bienestar.-Derechos-y-desmercantilizacion.pdf>

Estado de bienestar. Guías Jurídicas La Ley. https://guiasjuridicas.wolterskluwer.es/Content/Documento.aspx?params=H4sIAAAAAAAAAEAMtMSbF1jTAAASNjM2MLtbLUouLM_DxblwMDS0NDA1OQQGZapUt-ckhlQaptWmJOcSoA5gLqizUAAAA=WKE

Federación de Enseñanza de CC.OO. de Andalucía. (2011). *Origen, concepto y futuro del Estado de Bienestar.* <https://www.feandalucia.ccoo.es/docu/p5sd8428.pdf>

Fiscalidad Autonómica. Ministerio de Hacienda y Función Pública & Agencia Tributaria. https://www.agenciatributaria.es/AEAT.fisterritorial/Inicio/ menu /Fiscalidad_Autonómica/Regimen_Foral/Regimen_Foral.html

Gipuzkoako Foru Aldundia. (2022, martxoak 17). 227,5 milioi euroko zerga iruzurra azaleratu zen 2021 urtean. Gipuzkoa.eus

<https://www.gipuzkoa.eus/eu/-/227-5-milioi-euroko-zerga-iruzurra-azaleratu-zen-2021-urtean>

La presión fiscal en la OCDE. El Orden Mundial – EOM.

<https://elordenmundial.com/mapas-y-graficos/presion-fiscal-ocde/>. (2020, maiatzak 31).

López, D.M. Posmodernia. (2020). *El Estado de Bienestar de Bismarck*.

<https://posmodernia.com/el-estado-del-bienestar-de-bismarck/>

López, D.M. Posmodernia. (2020). *El Plan Beveridge*.

<https://posmodernia.com/el-plan-beveridge/>

Martínez, M. J. (2007). Origen y evolución del Estado de Bienestar. *Las políticas familiares en Europa. Una aproximación al Estado de Bienestar desde un enfoque de género* (48–103 orr.).

<https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/9007/MJOSEMARTINEZ%20TESIS%20CD.pdf?sequence=1&isAllowed=y>

Molina, A., Amate, I., & Guardido, A. (2011). *¿Qué motiva la presión fiscal?* (53-56 orr.)

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=3728547>

Norma Foral 2/2005, de 10 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia.

https://www.bizkaia.eus/Ogasuna/Zerga_Arautegia/Indarreko_arautegia/pdf/ca_2_2005.pdf?hash=a5f3764724dd8f0ae52121980e7dfdf8&idioma=CA

UNED. *Diferentes definiciones del Estado de Bienestar*.

http://ocw.innova.uned.es/01_COMA/estado_bienestar/contenidos/html/M1/material_complementario/concepto_de_estado_de_bienestar.pdf

Van Kersbergen, K., "El estado del bienestar en Europa", *La búsqueda de Europa. Visiones en contraste*, Madrid, BBVA, 2015.

<https://www.bbvaopenmind.com/articulos/el-estado-del-bienestar-en-europa/>

Vasco, G. (2022). *Deuda Pública de la Administración General del País Vasco*.

<https://www.euskadi.eus/deuda-publica/web01-a2finan/es/>

Zabalo, J., & Moreno, G. (Eds.). (2011). Egungo gizarte-zerbitzuen oinarriak: gizarte-eskubideak. *Gizarte-zerbitzuen oinarriak* (52–70 orr.). UPV/EHU.

<https://ikasmaterialak.ehu.eus/gizarte-langintza/gizarte-zerbitzuen-oinarriak>

Zergak Txostena. (2021, ekainak 21). B.F.A., G.F.A., A.F.A., Gestionet, Eusko Jaurlaritza.

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/educacion_tributaria/eu_14815/adjuntos/Ekonomia-eta-zergak-Txostena-2020-2021.pdf

Zubiri, I. (2003). *El sector público del País Vasco en la actualidad*. (68-103 orr.).

<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=1012114>